

Arrasate

1995eko
apirilak 7
272. zenb.

DEUNORO OTERO (UDALPTXFA)
HERRIKO PLAZA
ARRASATE
0

9



Diru kontuak

Udal Aurrekontuak
onartzeko prest

AUTOS MURU, S.L.



NISSAN-en gamarik zabalena Arrasaten!!!

Orain zu!

Orain Nissan Micra 1.090.000 pta.tik aurrera.

Escatu Pabilioia, 3 (San Andres auzoa) ARRASATE Tfnoa: 79 27 16

Eskulanak




Zabaldu berria!



- Eskulanentzako produktu guztiak
- Arte Ederrak
- Aldizkarlak

- Adin guztietarako
- Elkarteentzat
- Ikastetxe eta ospitalentzat beherapen bereztlak



Txartel honekin
% 10eko BEHERAPENA
erosketa guztietan

Hilabeterako ballagarria.

Eskulanak

Foruen Plaza, 1
Tfnoa: 79 86 49
ARRASATE

Ekonomia berria eta enplegua

Lraultza teknologikoaren eta merkatua-
ren ondorioz aldatzen da panorama
konpetitiboa. Teknologia izan da
ekonomiaren garapen historikoaren
motorea, baina garai batean mendeak
behar baziren hura jendeak erabiltzeko eta
ideiekin eta aurkitu direnekin jabetzeko,
gaurko egunean urte gutxi dago lehen
ideiak sortu direnetik merkatuan jarri diren
arte. Horri aurre egiteko aldia laburra da
eta gutxien berritzen diren enpresak edo
erosten duten enpresak lur jota geratuko
dira eta hil egingo dira. Adibidez, 1714koa
da idazmakinaren patentea -aplikaziorik
egokiena 1858koa- eta 1914tik aurrera
denek erabili dutena. 200 urte behar izan
da leku guztietan erabiltzeko, eta gaurko
egunean, fax-ak 10 urte baino ez du behar
izan mundu osora zabaltzeko.

Berri izatearen berezitasunak dira:
aldaketa arina, iraungitasuna eta berritasu-
na. Eta jakina, enpresa berri eta garrantzi-
tsuak izango dira, berritasunaren egitura
horri egokitzen diren
neurrian.

Logikaz, enple-
gua gauza malgua da, ez
baita ezer finkoa.
Ezaguera gaurkoturik
izatea ere modernitate-
aren beste ezaugarri bat
da. Karrerako ikasketak
arautuak epe motzean
ezerezean geratzen
dira. Hortik dator,
beraz, prestatu eta
ikasteko plataformen
eta zentro teknologi-
koak izanaren
garrantzia estrategikoa;
zientziak eta teknolo-
giak nondik jotzen




L. Letona

duen jakiteko prest, enpresei eta hango
pertsonei guztien berri emateko.

Teknologia azkar doanez eta merkatua-
ren tamainuaren ondorioz, nazionala
izatek nazioarte mailara doana, malgua
eta edozeinek eskura dezakeena, aldaketa
kopernikoa eman da herrialde eta pertso-
nen arteko trukean. Lehiakideak sortzen
dira, aurkakoak, munduko txoko guztietatik,
eta kostua eredu horren arabera ematen
da, produkzioaren baldintzak ez direlako
berdinak, bajuak direlako soldata-kostuak.
Teknologia unibertsalatu, estandarizatu
egiten den bitartean eta kopiatzeko
modukoa den bitartean, kostu bajuko
produktuetako lehia Mendebaldean
"dumping social" izenez ezagutzen duguna
erabakitzen da, soldata bajuak dituztelako
Ekialdeko herrialdeetan.

Kualifikazio bajuko lanak arriskuan
jartzen dituzte teknologiak eta merkatu
globalek; eta zerbitzuak jan egin beharko
ditu edo egiturazko langabezia altua
izango da (Espainian %14-17koa jo da),

eta profesionalak eta kualifika-
tuak prestatuago egon beharko
du eta malguagoa izan beharko du,
aldakorra eta hara eta honako
lanbidea izan beharko du, eskain-
tza ez baita nazionala bakarrik
izango, Europa osokoa baizik. Duela
urte batzuk bestelakoa zen panorama;
ikasketak izan eta lan finkoa lor
zenezakeen, eta betiko



JESUS LARRAÑAGA LIZARRALDE

gainera. Oraingoan,
geroago eta gehiago
jakin behar dugu eta
lanbide malgua eta
hara eta hona
mugitzekoa izango
dugu.

GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...

ZUHAITZ
jatetxea



Tfnoa: 71 46 08

Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Beñardo Kortabarria. Kazetariak: Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Mai-
der Egües. Publizitatea: Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). Administrazioa: Ikeme Altube eta Itsa-
o Errasti (Tfnoa: 77 08 15). Maketazioa: Goio Arana. Kolaboratzaileak: Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jau-
regi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan
Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier
Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Mar-
tiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubiza-
rrera, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Ander Etxeberria, Jon Aldanondo. Banaketa arduraduna:
Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kon-
tzentratua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Azala: Mario Egües



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

**Agian,
"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!**

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

•••••
Zoritzarrez

1 995eko martxoaren 24an Almeneko Goi Batxilergoko delegatuak bildu gara Lasa eta Zabala gudarrien erahilketa eta hil aurretik jasan zituzten torturak salatzeke.

Nahiz eta Euskal Herri guztian paro eta mobilizazio deialdiak egon, ezinezkoa izan zitzaigun klaseak uztea Almenen paro normatiba suspentsioan dagoelako.

Beraz elkartasuna adierazteko, gure aldetik, mobida alternatibo bat aukeratu dugu, guk ahal dugun heinean Euskal Herriak Espainiar Estatuarengandik jasaten duen errepresioa salatuz. Guk, kartelez, klaseetan informazioa banatuz, debateak eginez.. eta hitz hauen bitartez, gure jarrera eta egoera adieraztea pentsatu dugu eta bide batez jende guztia arazo honetaz ausnartzera bultzatu nahi dugu.

Azkenik, momentu hau aprobetxatu nahi genuke bi gazte tolosar hauekin batera, Euskal Herriagatik bizitza eman duten guztiak gogoratzeko.

**ALMENEKO GOI
BATXILERGOKO DELEGATUAK**

Ohar pare bat

Jakina denez datorren astean osteguna eta ostirala jai egunak dira. Hori dela eta ARRASATE PRESSa asteazkenean jasoko duzue zuen etxeetan.

Zuzenketak egiterakoan, akatsa agertzen den esaldia edo parrafoa zuzentzen dugu, ez gutun edo artikulu osoa. Pako Roblesen gutunean, berak zuzentzen du guk izandako akatsa, eta horrekin zuzenketa eginda dagoela uste dugu.

•••••
Argipena

1 995ko martxoaren 17ko ARRASATE PRESSEan, 269 zenbakian, nik Leongo espetxetik igorritako idatzi bat argitaratzen da. Bertan azaltzen diren sigla batzuk argitu nahi nituzke, ez baitira inoiz nire lumatik atera. EAJko siglak hain zuzen ere.

Pentsatzen dut errua (sigla hauek gehitzearena) ustegabekoa izan dela, beraz ez naiz "Arrasate Press"eko linea editorialarekin polemikan hasiko, manipulazioaz hitzegin beharko nuke eta. Hala ere, nahasketak ekiditzeko, nere zuzenketa idatzia argitaratzea nahiko nuke, kortesia hutsez izanda ere, ez baitut lehen aipatutako siglei lotzen nauen ezer nahi.

Idatzi originalak zera dio: (...) "Kontuan hartu beharreko ezinbesteko gauza bakarra bere parrafoetan ETA, HB, KAS, edo orokorrean Ezker Abertzalearen ziztrinkeria aipatzea dela" (...). Argi dagoenez, une bakar batean ez da EAJ aipatzen. Ezin da beste era batera izan, izenpetzen duenak ez baitzien sekula idatzi bat zuzenduko bere kartzeleroei gutunean agertzen diren beste siglei zuzentzen zaien zentzuan, erabat identifikatzen baita azken hauekin.

Beraz, behin hau argitu ondoren, espero dut errekifikazioa aurrez bidalitako (behin zuzenduta) idatziarekin argitaratzea. Horrela izango delakoan, agur bero bat denontzat.

**PAKO ROBLES
(EUSKAL PRESO POLITIKOA)**

**DEKORAZIO DENDARAKO
INSTALATZAILE BAT BEHAR DA**

Baldintzak:

- 30 urte inguru izatea.
- Gidatzeko karneta.
- Instalazioetan esperientziaduna.
- Lanerako trebetasuna.

Informazio gehiagorako dei egin 77 11 48 tfnora.

**IXOKO
TABERNA**
Cure berezitasunak
pintxo eta
mekau gozoak

Zaintzen duzu zure osasuna?



Ignacia Llodio
Etxekoandrea
(77 urte)

Bai, zaintzen dut. Ez dut edozer gauza jaten, saltsak eta ez ditut jaten. Gainera pasiatzera ere joaten naiz eta hezurretarako kaltzioa hartzen dut.



Jesus Gonzalez
Jubilatua
(69 urte)

Gaztetan ez baina orain bai. Bazkari asuntuan dextente zaintzen naiz eta edan ere gutxiago egiten dut. Egunero, gainera, hiru edo lau kilometro egiten ditut oinez.



Alicia Osa
Langilea
(29 urte)

Bai, bastante. Dexente erretzen dut baina jaterako orduan zaintzen naiz eta kirol apur bat ere egiten dut. Uste dut guztiok zaintzen garela apur bat.



Aimar Elorza
Ikaslea
(17 urte)

Noizean behin kirol apur bat egiten dut baina horretaz gain ez dut aparteko ezer egiten.




Susana Melgar
Langabezian
(21 urte)

Nahi dudana jaten dut baina nahiko kirol egiten dut. Asteaz igarilekura joaten naiz eta gimnasia ere egiten dut.



Maria del Carmen Nuevo
Etxekoandrea
(48 urte)

Ahal dudana neurrian bai. Egunero ibiltzen naiz ordu-bete eta kilorik ez hartzeko garbi jaten dut.



Txema Mela
Langilea
(30 urte)

Baietz uste dut. Ez dut erretzen, alkohola ere gutxitan probatzen dut eta jaterako orduan dieta orekatua jarraitzen dut.



Patxi Vicente
Langilea
(34 urte)

Hori uste dut. Azken hilabetetan erregimena egin dut eta kilo batzuk galdu ditut baina zoritxarrez berriz ere erretzen hasi naiz.

Ikerne Heriz Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ileapaindegian

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Masaiak
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Betile iraunkorrak
- Azal garbiketa
- Ezkongaiantzako makilajea

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit79 53 00
 Iguatorialdea79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko).....77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantziak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterongo liburategia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 7

Egunez eta gauzez: Camacho. Begara.
 10ak arte: Español. Iturriotz kalea.

Larunbata 8

Egunez eta gauzez: Puy. Begara.
 10ak arte: Corcuera. Musakola auzoa.

Igandea 9

Egunez eta gauzez: Puy. Begara.
 10ak arte: Irizar. Erguin kalea.

Astelehena 10

Egunez eta gauzez: Cuellar. Begara.
 10ak arte: Ameza. Santamaina auzoa.

Asteartea 11

Egunez eta gauzez: Estella. Begara.
 10ak arte: Ruiz. Maala kalea

Asteazkena 12

Egunez eta gauzez: Mozas. Begara.
 10ak arte: Morales. San Andres auzoa.

Osteguna 13

Egunez eta gauzez: Camacho. Begara.
 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías kalea.

7 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Cadena perpetua" 7etan eta 9.30etan.

• **GALIZIARREN JAIA**
 Arratsaldeko 6etan jaiaren hasiera. Ondoren olagarroa, ribeiro ardoa, enpanada goxoa eta bukatzeko postrea Santiago opilaz. 10etan dantzaldia "Ciudad de Vigo" orkestrarekin.

• **ALBERT PLAREN KON-TZERTUA**
 Amaia antzokiko hall-ean gaueko 10.30etan. Sarrera: 300 pta.

• **AEDKO GAZTEEN ASANBLADA**
 Euskararen aldeko gazteen asanblada arratsaldeko 7.30etan AEDko lokalean

Galiziarren jai ostira-lean arratsaldeko 6etan hasiko da eta domekara arte, umore ona eta jai giroa nagusituko da. Besteak beste galiziako dantzak, kalejirak, dantzaldiak. Denetik antolatatu dute Galiziako eguna primeran pasatzeko.

8 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "Cadena Perpetua" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **MENDI IRTEERA**
 Besaide mendizale elkarteak antolatuta Aspe Aranera mendi irteera. Goizeko 5etan irteera Garibaitik. Itzulera domekan.

• **GALIZIARREN EGUNA**
 Goizeko 10etan Eibarko Galiziako Kultur Etxeko gaitero eta dantzarekin kalejira Zigarrolatik hasi eta Udaletxeraino. 12etan Asunzioneko Elizan meza parrokiako abesbatzaren laguntzarekin. Ordu batean "Los Galaicos" taldearen eskutik dantza galziarrak San Andreseko plazan. 10etatik goizaldera arte dantzaldia "Marazul" taldearen eskutik.

• **KAMARA ORKESTRAREN AURKEZPENA**
 Arrasate Musikaleko Kamara Orkestraren aurkezpena Amaia antzokian arratsaldeko 7etan. Sarrera: Bazkideentzat doan, gainontze-koentzat 500 pta.

9 IGANDEA

• **ZINEA**
 "Cadena Perpetua" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **ANTIGUAKO V. KROSSA**
 Egunkariaren aldeko Antiguako V. herri krosa. Irteera Antiguako Auzoko Benta berri plazatik goizeko 11etan.

• **SKAUTEN JAIA**
 Gipuzkoako Skautek Arantzazuko Iturri gorriko zelaian izango dute zita. Goizeko 10etan Arantzazuko Santutegian elkartuko dira. 10.30etan Iturri gorriko zelaian martxa. 11etan paella lehiaketa gurasoentzat. 1.30etan Eukaristia. 2etan bazkaria. 3.30etan jokuak eta 5.30etan jaiaren amaiera.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Ibilbidea: Arrasate, Aramaio, Kruzeta, Marixeka, Otxandio, Olaeta, Legutio eta Arrasate, 55 kilometro guztira. Irteera goizeko 10etan Monterronetik.

• **GALIZIARREN EGUNA**
 Goizeko 11etan follore-dantzak gaitero eta dantzari taldeekin. Ondoren "Panama" orkestraren emankizuna. Arratsaldean jaiaren bukaera



10 ASTELEHENA

• **ZINEA**

"Cadena perpetua" 7etan eta 9.30etan.



11 ASTEARTEA

• **ZINEA**

"Cadena perpetua" 7etan eta 9.30etan. (Ikuslearen eguna)


• **SARASUA ANAIEN ETA LEKUNBERRIREN EMANALDIA**

Sarasua anaiek eta Juan Luis Lekunberrik pianoan lagunduta "Fauna txiki bat bertso berritan" eskainiko dute Aretxabaletako Liburutegian arratsaldeko 7etan.

12 ASTEAZKENA

• **GAZTETXEAN KONTZERTUA**

"Kumulo de Limbo", "Child Abuse", "Etsaiak" eta "Makina" taldeen kontzertua Arrasateko Gaztetxean gaueko 8etan.



SAL TSA IKASTAROA

Apirilaren 18, 23, 25, 30 eta 1ean Saltsa ikastaroa Musakolako Kiroledegian. Irakaslea: Arnaldo Patterson. Ordutegia: goizez 11etatik 12.30etara eta arratsaldeaz 6.30etatik 8etara eta 8etatik 9.30etara. Prezioa: 2.250 pta bazkideentzat eta 3.250 pta bazkide ez direnentzat. Informazio gehiagorako dei egin 79 04 27 telefono zenbakira.

CORREOSEKO OPOSAKETETARA AURKEZTEKO IKASTAROA

CC.OO sindikatuak antolatuta Correoseko oposaketetara aurkezteko ikastaroa apirilaren 24tik aurrera. Astean hiru egunetan, arratsaldeko 5.30etatik 7.30etara. Ikastaroa CC.OOko lokaletan eman go da. Izena emateko lokalera jo, Garibai 14 -1º.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Apirilaren 21etik maiatzaren 2ra arte, Jose Luis Feo argazkilariaren erakusketa Harresi aretoan. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldeaz 6etatik 8etara.

GIMNASIA ERRITMIKO TXAPELKETA

Eskola-arteko Gimnasia erritmiko txapelketa, Iturripeko kiroldegian, arratsaldeko 4etan zapa-tuan.

KIROLDEGIKO ORDUTEGIAK ASTE SANTUAN

Musakolako kiroldegia Aste Santuan ostegunetik astelehenera goizez bakarrik egongo da zabalik. Iturripe kiroldegia 10, 11 eta 12an arratsaldeko 5etatik 10etara zabalik. Aste Santuan itxita egongo da eta Paskua Astean arratsaldeaz zabalik 5etatik 10etara.

ARTESANIA ERAKUSKETA

Apirilaren 28tik maiatzaren 3ra arte "Corazon de Encina"k antolatutako extremeñoen artesanian erakusketa Monterronen. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte, larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldeaz 6etatik 8etara.

LUDOTEKAN ORDUTEGI BEREZIA OPORRETAN

Txatxilipurdiko ludoteka apirilaren 13, 14, 15, 16 eta 17an itxita egongo da eta apirilaren 18tik 22ra arte goizez 11etatik 1.30etara egongo da zabalik.

Koroan bakarrik Carmina Burana-ren giran parte hartzeko nago, musika aldetik harrigarria eta letra kojondua duen lan profanoa. Ni orain sartu naiz historia honetan, baina Txarra eta Yul Arrasate Musikal-eko orkestran egondakoak dira, tromba eta tromboia jotzen, nahiz eta RIP-en sartzeko utzi. Beharbada orduko gure ideiekin ez zeukan zer ikusirik, baina gaur egun ez zaigu batere arraroa egiten.

Talde bezala inoiz ez genuen banatzerik erabaki; egoerak bultzatu gintuen bata bestearengandik urruntzera. Disko hau ere ez da ezerren hasiera, HIESaren ondorioz bidean gelditu den jendea gogoratzeko gauza bat besterik ez da. Dagoeneko ez du konponbiderik, baina hain gertutik ezagutu dugunez HIESaren aurkako borrokan guk ere ahal duguna jarri nahi dugu”.

Carlos Agirreurreta, 1995ko martxoaren 31a.

EL CORREO

Ez da ahantzi behar Fagor talde indartsua dela industriagintzan baina zerbitzu alorrean ez dugu behar beste indarririk. Sei-Fagor Baionan sortzearekin guk nahi dugu zerbitzu eskaintza ahalik eta zabalena ekarri, sail honetan izateko gisan industrian dugun indarra. (...)

Seik interesa badu guretzat, merkatu aberatsagoan mugitzen delako, hor jende trebatua baitauka eta ondorioz iparraldean erdiets dezakegun jakintza teknikoa askoz ere aberatsagoa da. Orohar aurkitzen dugu SEI-FAGOR unitate honekin orain arte ez genuen tresna bat, hori nahi dugu garatu eta hedatu.

Aitor Orobengoa, 1995ko martxoaren 30a.



Zer berri Batzar Nagusiaren ondoren?

Lagun Aroko Batzak Nagusiaren aztertutako gaietan erabaki ugari hartu zen, baina behar bada aipagarrienak lau izan daitezke:


1) Pentsioei dagokionez, oinarri erregulatzailerean kalkulua egiteko hogeitamar urterik onenak edo benetan kotizatutakoak hartzea erabaki zen. Era berean, urte bakoitzeko %2ko kopurua ezarri zen.

Artikulu bat zein besterako, eta ezartzerakoan eragin gehiegirik izan ez dezaten disposizio iragankorrak ezarri dira.

2) Banaketari dagokionez, enpleguaren lehentasuna onartu zen, aurrejubilatu bateragarritasuna kanpoko inkorporazioen bidez orekatzea, eta elkarkidetasun maila jeisteko frankizia bat erabiliz.

3) Ez zen onartu lehen hilabeteko behinbehineko ezgaitasuna %10 jeisteko proposamena, ezta bajaren gestiorako gertueneko lehen bost egun ere. Pentsatzen da 1995. urtean entepresen egoera, 1993-1994 urteekin alderatuta, hobetu egin dela, beraz ez dirudi lan-absentismoari aurre egiteko beharrezkoa den inongo eragingarri ekonomikorik.

4) Amatasunari dagokionez eta Gizarte Asegurantzaren parean gera dadin, %100aren ordainketa onartu zen.



Roman Balanzategi
Lagun-Aroko lehendakaria



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Lagun Arok iharduera ona


MCCko mutualitateak 11.825 miloiko irabaziak lortu zituen iaz eta aurtan 14.252 milioira iristea espero du. Datu hori joan den zapatuan egin zen Batzar Orokorrean eman zuen ezagutzera Lagun Arok. Ramon Balanzategi lehendakariak azaldu zuenez, Lagun Arok ere igarri du krisiaren eragina, aurreratutako jubilatzen ondorioz iaz 400 bazkide gutxiago izan zituen eta.

UGT ordezkariak aukeratzeko

UGTko gipuzkoako 60 arduradun, sindikatu horrek Arrasaten duen bulegoan bildu ziren astelehenean, Madrilan egingo den kongresuan izango diren ordezkariak aukeratzeko. Arrasatera metal saileko ordezkariak etorri ziren, metal sailerako idazkari orokorra izendatuko dute eta apirilaren 29an. Cándido Méndez eta Manuel Fernandez dira idazkari nagusi izateko aurkeztutakoak.

ARKOren batzarra

Jende gutxi izan zen joan den ostegunean ARKOekin egin zuen Batzar Orokorrean. 1995erako egitasmoen berri eman zen batzarrean eta Zuzendaritza Batzordeko partaide berrien izenak jakin ziren.




Lenteja lapikoak Erguin geldiarazi

Ostiral goizean lapiko bat agertu zen Erguin auzoko espaloi baten gainean. Auzotar batzuzentzat susmagarria zen lapikoaren presentzia eta Udaltzainei deitzea erabaki zuten. Lapikoa inorena ez zela ikusirik, Udaltzainek Ertzantzari deitu zioten eta horiek kalea itxi zuten. Eguerdia aldera, ertzantzaren artezilaria iritsi ziren eta trebatutako txakurrekin saiatu ondoren, zepo bat jarriz lapikoa lehertarazi zuten. Lapikoa lentejaz beteta zegoen.

Jose Mari Mendizabal hil egin da

Jose Mari Mendizabal apaiz arrasatearra hil egin zen astelehen goizean. Joan den ostiralean bihotzetik operatu zuten eta ebakuntzatik onik atera bazen ere, txarre-eragin egin zuen eta 60 urte zituela agur esan zigun. Jose Mari Mendizabal Leintz Bailarako artzipretea zen eta zenbait urtez eskola politeknikoan irakasle izan zen. Astearte goizean San Juan parrokiara eraman zuten gorpua eta hainbat herritarrek azken agurra eman zioten. Arratsaldean, berriz, hileta elizkizuna egin zen eta jende asko joan zen elizkizunera.

Goian bego Jose Mari Mendizabal.



Atletiko taldearen balantzea

Urteko Batzar Orokorra egin zuen Arrasate Atletiko taldeak joan den ostiralean. Iazko diru kontuei dagokierenez, taldeak ez zuen ez irabazirik ezta galerarik izan, baina entrenatzeko tokiarekin arazoak dituztela adierazi zuten. Izan ere Iturripeko pistak txiki geratzen zaizkiela eta, Markuleteko bidean entrenatu behar izaten dute atletak. Hala ere afizioa badagoenez, horrek aurrera jarraitzeko animoak ematen dietela adierazi zuten taldeko arduradunek.

"Euskaldunon kantak" aurkeztu


Amaitu antzokia bete zen arren, jende asko izan zen Goikobaluk atera berri duen konpaktoaren aurkezpenean. Aurkezpen kontzertua domekan egin zen eta konpaktoan entzun daitezkeen kantuez gain, Carmina Burana lanaren zati batzuk kantatu zituzten.

Jaiotzak

- Leire Aranburu Uriguen. Martxoaren 27an.
- Koldo Fernandez Eriz. 27an.

Hildakoak

- Juana Ayastui Villar. Martxoaren 28an. 85 urte.
- Maximo Loiti Laskurain. 29an. 77 urte.
- Carmen Fernandez de Gorostiza. 29an. 71 urte.
- Dolores Santiago Montero. 31n. 70 urte.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia


Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA



* ANTON DEL CAMPO

Erlojuaren menpekotasuna naturala ote?

Udaberriaren etorrerarekin ordu ofizialaren aldaketa egokitu zaigu. Larunbata eta igandearan artean, goizeko ordubietan, hirurak jarri behar izan genuen.

Batzuek eritziz, zentzurik gabeko erabakia dugu aipatutako aldaketa. Beraien esanetan, biorritmo delakoaren kalterako, beste ezertarako ez duela balio adierazten dute.

Administralgoak berriz, energia elektrikoaren aurrezte nabarmena lortzen dela esaten digu.

Nere ustez guzti hau astronomiaren esparruan azertu behar da. Honela bereiztuko dugu zer den guztiz naturala eta zer guztiz ofiziala (beraz artifiziala).

Ondo dakigu (eta ez bazekien sinets eguzku irakur-

le lurraren biraketa-ardatza eta lurra urtean zehar eguzkiaren inguruan egiten duen ibilbidea ez direla perpendikularrak. (Tronpa batek dantza egiten duenean, apur bat etzanda ibiltzen den legez).

Hori dela eta, eguna eta gauaren iraupena desberdina izaten da urtean zehar, eta eguraldia ere aldatuz doa, garai batzuk besteak baino hotzagoak izaten baitira.

.....

“Astronomiaren esparruan aztertuz gero bereiztuko dugu zer den naturala eta zer guztiz ofiziala”

Oiloak eguzkia izkutatzen denean lokartzen dira (baita eguzki eklipseetan ere), eta oilarrek eguzkiaren lehen printzak somatu bezain laister kantatzen dute.

Sugandilek, zomorroek eta artzek, lozorroan ematen dituzte garai hotzak.

Guzti hau naturala da.

Geroago dator gizakien eskuartzea; lau urtaro, hamabi hilabete, 24 ordu egunero, zazpi egun astebetea. Guzti hau ofiziala da gure gizartean eta ez naturala, noski.

Horregatik oilarrak ez du kantatzen egunero ordu berdinean (erloju ofizialaren orduan), eta landareak ez dira urtero loratzen egun berebean.

Trenak berriz (teorikoki behintzat), ordu berdinean abiatzen dira eta errenta aitortzen egun konkretu batean egun behar dugu urtero.

Naturalagoa izango litzateke trena abiatzeko ordua eguzkiaren lehen izpiekin izatea, eta errenta aitortzen lehen elurte egunean esaterako. Baina hau naturala (korapilotsuegia litzateke).

Ezinezkoa da egunero ordu ofiziala minutu bat aldatzea eguzkiarekin batera ibiltzeko (honela gure biorritmoak ez luke ezer sufrituko).

Hala ere nire ustez, urtero egiten diren bi ordu ofizialaren aldaketak, egokia goak (naturaren eta eguzkiaren gertuago) dira, urte osoan aldaketarik ez gitea baino

* INJINERUA

USTEAK USTE

GOIERRITIK ATBRA BEGIRA

Herriko telebista honi buruz, mondragoetar askotxok baino zertxobait gehiago jakin dezaket orain. Arduraduna naizen aldetik horrela behar behintzat. Zuen telebista horretan pasatzen lehen orduak gogoratzean, oraintxe dudana impresio berbera dut. Ezin nuen sinestu herri komunikabideetan murgilduriko edozein elkartek ARKOk adinako hedapenik izan zezakeenik. “Arrasatearrak ez dituk erdibidean gertzen” entzun nion nire bailarako lagun bat. Ez zen gezurra. Telebistak berak ere zuen eta duen martxa, ez da gutxigorako. Noizean behin izaten ditugun bisitetan ikusten ditudan aho zabalek dena argitzen didate. Arrasatear: altxor bat daukazu esku artean, ZUREA den altxor bat. Goierrri baliteke Deba bailara baino euskaldunagoa izatea, baina pentsa horrelako zerbait bagenu. Enbidia sana da. Kanpotik errezago ikusten omen dira gauzak, baina kanpotik etorri eta barruan dabilen batek esaten ditu.

JON ALDANONDO



**Taberna-jatetxea
Kafetegia**

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69



ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

ZUTIK

Hautagairik ez, baina kanpaina bai

– Zergatik ez duzue kandidaturarik aurkeztuko?

– Partidu barruan hiru jarrera zeuden. Batzuk aurkeztearen aldekoak ziren, beste batzuk ez aurkeztearek eta azkenak, alderdi bati botua ematearen aldekoak. Gure artean iritzi desberdinak zeudenez eta alderditik kanpo giro onik ikusten ez genuenez, azkenean kandidaturarik ez aurkeztea erabaki genuen. Dena dela, badugu zer esanik, beraz kanpaina egingo dugu.

Hala ere udal hauteskundeetan erabaki bateraturik hartzen ez denez, Gipuzkoako beste herri batzutan, Antzuolan adibidez, zerrenda aurkeztuko da.

– Askotan beste batzuetarako eskatu duzue botua, oraingoan?

– Hauteskunde orokorragotan egin izan dugu

baina oraingoan ez egitea erabaki dugu. Argi dugu zein alderdiri ez diogun boturik emango, baina ezkerreko alderdiek Udaletxean daramaten politikarekin ados ez gaudenez, ez dugu partidu politikoa konkretu batendako boturik eskatuko eta Zutik-eko partaide bakoitzak erabakiko du zer egin.

– Zerrendarik aurkeztu ez arren kanpaina egingo duzue.

– Hitzaldiak eta mahainguru bat antolatu ditugu. Mahainguruan ezkerreko alderdiek Udala nola alda dezaketen eta herritarrek Udala nola ikusten duten aztertu nahi dugu. Jendeak Udalarekiko gero eta inte-

res gutxiago du, plenoetara ez da ia inor joaten eta Udaletxean dena oso maila teknikoan mugitzen denez, herritarrek oso urrun ikusten dute erakunde hori.

Bestalde, kaleko ekintzak egingo ditugu eta informazio orri batzuk ere kaleratuko ditugu. Ekintza guzti horien helburua jendeari gure programako puntu garrantzitsuenak zeintzuk diren gogoratzea izango da. Batez ere ekologiaren, etxebizitzaren eta emakumearen gainean zer proposatzen dugun azaldu nahi dugu.


– Nola ikusten duzue udal hauteskundeetan inguruan sortuz doan giroa?

– Alderdiak nahiko larri ibili dira zerrendak osatzeko orduan, jendea ez dago motibatua. Jendea gero eta pasiboagoa da eta gainera urrun ikusten dute Udaletxea.

“Ez dugu partidu politikoa konkretu batendako boturik eskatuko”



Axun Ibabe eta Arrate Landa



■ Alderdiak motorrak berotzen

Udal hauteskundeak gero eta gertuago daudela eta, apurka-apurka alderdi politikoak mugitzen hasi dira.

Nahiz eta dagoeneko eza-guna den alderdi bakoitzaren zerrendan zeintzuk joango diren, bi alderdik baino ez dute egin zerrenden aurkezpen ofiziala. Lehena Herri Batasuna izan zen; Txomin Iturberen omenaldiaren barruan. Ondoren, Eusko Alkartasunak egin zuen aurkezpen ofiziala.

■ PPren zain

Oraindik ez da jakin Partidu Popularrak zerrendarik aurkeztuko duen edo ez. Joan den astean baietz adierazi zuten Donostiako PPren egoitzatik baina aste honetan ez dute baieztatu nahi izan. Pentsa daiteke, orain dela aste bat zerrenda aurkezteko asmoa azaldu zuten, azkenean horrela izango dela, baina ezin ziurtatu.

■ Hauteskundeetako propaganda

Datozen hauteskundeetako propaganda jartzeko leku eta elementuen zerrenda on-tzat eman zen asteleheneko Gobernu Batzordean. Aurreko hauteskundeetan egin zen bezala propaganda jartzeko panelak jarriko dira herrian zehar eta alderdi bakoitzari toki batzuk eskainitako zaizkio.



Orain arte moduan kirol teknikariek antolatuko dituzte ekintzak.

Mankomunitatean bilduko da Deba Garaiko kirol zerbitzua

Eskualderako kirol ekintzak Deba Garaiko Mankomunitatean hemendik aurrera, eratuko den kirol zerbitzuak antolatuko ditu. Mankomunitateak zerbitzu berri hori bere gain hartzea erabaki du eta dagoeneko inguruko herri gehienek baietza eman diote asmo horri, Aretxabaletak eta Arrasatek ezik. Arrasatek hala ere, bere oniritzia azaldu zuen azken Gobernu Batzordean eta datorren asteartean egingo den Udal Plenoan erabaki hori berretsiko da.

Orain dela lau urte hasi ziren inguruko herrietako udal teknikariak bailara osorako kirol ihardurek antolatzen, baina babes ofiziala izan nahi zutela eta, zerbitzu hori Mankomunitatean sartzeari erabaki dute. Manko-

munitateak hala ere ez du langilerik kontratatuko, orain arte bezala kirol teknikariak izango dira ekintzak antolatzeaz arduratuko direnak. Udalek bestalde, Mankomunitatera zuzendu beharko dute aurrerantzean kirol ekintza horietarako ematen duten dirulaguntza. Iazko aurrekontua 3 milioia izan zen eta biztanle kopuruaren arabera, Arrasateko Udalari milioi bat ematea egokitu zitzaion.

Eskolarteko Olinpiada, Denondako Kirol Jaia eta Hedadetuendako Jaia antolatu izan dituzte eskualdeko udal teknikariek eta aurrean ere ekintza horiek errepikatuzeko asmoa dago. Horretaz gain, kirolaren inguruko topaketak egingo dira eta oraingoan, kirola eta emakumea izango da gaia.

Lau Biden ordu aldaketa

Astebukaeran berandua-go zabaldu eta itxiko dute Lau Bideko aparkalekua. Zapatutan goizeko 11etatik gaueko 11etara egongo da zabalik eta domeketan eguerdiko 12etatik gaueko 12etara. Asteazken bezala, goizeko 8etatik gaueko 10etara izango da irekita. Udalak gainera, beste hitzarmen bat sinatu du Ibai Arte elkartearekin, denda horietan eskuira izango diren ticketen bidez aparkalekuaren erabilera bultzatzeko.

Emakumeendako buzoia

Arrasateko emakumeek dituzten kezka ezagutzeko, buzoia bat zabaldu du Udaleko Emakumearen Sailak. Era horretan, emakumearen egoera sozio-ekonomikoa ezagutzeko egiten ari diren ikerketarako datuak batu nahi dira. Zerbait esateko duten emakumeek, IMiko lokaletan izango den buzoian utzi dezakete euren proposamena edo bestela korreoz bidali helbide honetara: Arrasateko Udalaren Emakumearen Saila, Arrasate Pasealekua, 1.

GORKA
 ILEAPAINDEGIA
 SOLARIUMA
 Ferrerías, 35 ARRASATE
 Tfnoa: 77 13 78

• **Txitxinpe** •
 Bereztasunak:
 Kafea, ardoa, urdaitegia,
 fruitu lehorrak
 Arrasate Pasealekua, 33
 ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Elena
 Bizkaia Etorbidea, 1 etxebaia ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**
 Ferrerías kalea
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 56 11

Jaiotzak behera eta hildakoak gora joan den urtean

Orain bi urte baino 26 ume gutxiago jaio zuen iaz Arrasaten eta 18 lagun gehiago hil ziren, guztira 153 haur jaio eta 189 lagun hil. Datu horiek datorren martitzenean, hilaren 11n egingo den Udal Plenoan emango dira ezagutzera eta gainera, emigrazio eta inmigrazio kopuruak ere jakingo dira. Iaz 230 lagun etorri ziren herrira 465ek utzi zuten. Azken urteetako joerari jarraituz beraz emigrazioak funtsezko faktore izaten jarraitzen du, biztanlegoaren beherakada ulertzeko orduan. Datu orokorrak ematerakoan, aipa daiteke urte hasieran 24.786 biztanle zeudela, iaz baino 271 gutxiago.

Martitzenean egingo den Udal Plenoko puntu garrantzitsuenetarikoa hala ere, aurrekontuen onarpena izango da besteak beste. Seguruen arazo barik aurrera aterako dira aurrekontuak, Gobernu Batzordeko alderdiak ados jarrita daude eta. Baina gainontzeko alderdiek euren desadostasunak azaltzeko aukera izango dute. Bestalde, eskualdeko kirol zerbitzua Mankomunitateak bere



Urte hasieran 24.786 biztanle zituen Arrasatek.

gain hartzeari buruzko proposamena aztertu beharko du Udalbatzak.

Txakur kakak arazo bihurtu

Arrasateko kaleetan gero eta txakur kaka gehiago azaltzen dela eta, txakur jabeai arazoaz jabetu daitezten kanpaina hasiko du Udalak.

Hainbat herritarrek arazo horren inguruan protesta egin duelako erabaki du Udalak neurriren bat hartzea. Herriko kaleetan eta lorategietan agertzen dira batez ere txakur kakak, eta hori herriko garbitasunerako eta umeendako arazoa izaten da.

Hildako txakurrak askotan kalean uzten direla ikusita, gainera, Mankomunitateari animalia horiek eta beste batzuk jasotzeko zerbitzua antola dezala eskatuko dio Arrasateko Udalak. Hala ere, nahiko zaila ikusten da Mankomunitateak zerbitzu hori sortzeko ardura bere gain hartzea.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURCIÓNDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



Ikasleen elkar-trukatze programa bati esker, Ingalaterrako South East Essex herritik 17-18 urte bitarteko 12 neska mutil etorri dira arrasatera. Ikasle batzuk Osteleritza eskolan egon dira eta beste batzuk Eskola Politeknikoan. Hiru aste gure artean egon ondoren, astelehenean Ingalaterrarantz abiatuko dira. Urrian Arrasateko ikasleak egon ziren South East Essex herrian.

EKINTZA ACCION

ARRASATE, Mayo de 1977

AKTIBO
 Hainbat ekintza...
 Hainbat ekintza...
 Hainbat ekintza...

AKTIBO
 Hainbat ekintza...
 Hainbat ekintza...
 Hainbat ekintza...

LA VOZ DEL HOGAR
 Catorceavo Junta Directiva...
 Catorceavo Junta Directiva...
 Catorceavo Junta Directiva...

Orain urte batzuk bezal
Erguineko jubilatuetan
"Ekintza" berri papera at-
ratzen hasi dira, berriz ere.
"Ekintza" berri paperaren
helburua Jubilatuetako
ak informaturik izateko
da. Bertan, egun egune-
ko albisteez gain, umoreari
eta esaerei utzitako tarte
aurki daiteke. Orrialde ira-
kurterraza eta ziur daude
jubilatuaren gustokoa.

Eskola Politeknikoan ikasten duten bost ikasle izan genituen gurean, ARRASATE PRESS eta Arrasate Telebista gertutik ezagutzeko. Arretaz entzun zituzten emandako azalpenak eta zenbait zalantza argitzeko aukera izan zuten. Ikasi beharrekoak ikasi eta gero, argazkia, jakina!



S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a
 Tfnoa /FAX: 79 01 82

MARGOAK JUANMA

Margoak, paperak, gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.
 Tfnoa: 79 69 17


comercial
 san juan

hikein
 MARKO-JARTZEAK

Garibai, 12
 Tfnoa: 79 13 05

Zerkaosteta, 4
 Tfnoa: 79 13 84

Luis Valdezatek eta Angel Alonsok Arrasatek Zamorako Morales de Toro herrira bizikletaz joateko asmoa dute maiatzaren 20an. 332 kilometro egiteko gogor ari dira entrenatzen asteburuetan, eta egia esateko, horrenbeste kilometro bizikletaren gainean egitea, ez da txantxetako gauza. Ea bada, eguraldia eta haizea alde duten eta Zamoraraino hel-tzen diren.



IZEN PROPIOAK

- **Itziar Zabala** 14 urteko arrasatearrak 17 urte azpiko Euskadiko Judo txapelketan lehen postua eskuratu du 44 kiloko pisuan. Itziarrek IEEko lehen kurtsoa ikasten du San Viator ikastolan.
- **Rakel Murgiondo** 28 urte, arrasatearra da Goikobaluko presidente berria. Musika eta Magisteritza ikasi ditu Rakelek eta San Viator ikastolako irakaslea da.
- **Jose Angel Achón**, bere tesi Doktoralaren aurkezpena egin zuen asteazkenean Koldo Mitxelena kultur etxean Donostian. Tesi doktoralak "A voz de concejo" izenburua du eta zati handi bat Arrasaten dago oinarrituta.



Aurtengo **Udaberriko Jaia** egiteko "Egunkariak" Arrasate aukeratu nahi du. Jaia herrian burutu dadin badakigu Udalarekin harremanetan jarrita daudela antolatzaileak. Egunkariako jaia ekainaren 11ean egingo litzateke eta antolatzaileek adierazi dutenez 20 mila lagun inguru elkartzea espero dute.

- **Irene Martinez** 16 urteko bergararra 3. saria lortu du "Euskal Eskola Publikoa Denona" lempa-an antolatu den Ipuin Lehiaketan. Lehiaketa HIGE Gurasoen Elkartek antolatu du. Irenek Arrasateko Institutoan ikasten du BBBko hirugarren kurtsoa.

EUSKALDUNON **Egunkaria**

**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**ZARRAOA
ZARRAOA
EL ARCA DE NOE**

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



Arrasateko OSASUN GIDA

ALBAITARIAK

ALTAMIRA KLINIKA J.L. Iñarra, 24-Behea ☎ 79 74 89
ZARUGALDE KLINIKA Zarugalde, 25 behea (24ordutan) ☎ 79 15 31

ALERGIA ETA ASMA

ATXEN ARANZABAL Olarte, 43 ☎ 79 81 00 / 79 81 11

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ☎ 79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk ☎ 79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 79 71 90
DENTAL-ZURI (Lagun-Aro, Osakidetzako haur programa) Arrasate Pasealekua, 33 ☎ 77 01 36
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis ☎ 79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º ☎ 79 69 45
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ☎ 77 12 63

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

MARIBI SERRANO Kalealdea, 11- behea (Asteazkenetan) ☎ 79 65 78
LOREA ARANBURU Drea. BETI-ONA GIMNASIOA Uribarri Etorbidea, 12 ☎ 77 00 67

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ☎ 77 03 96

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta, 17-Behea ☎ 79 20 18

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk ☎ 79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎ 79 48 77

MASAIARIAK

IOSU ARANZABAL Dr. Bañez 10, 1º ☎ 79 18 18
EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk ☎ 77 06 22

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Análisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 79 44 22

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 79 25 98
GARAGORRI OPTIKA (Optika eta optometria) Iturriotz 29 ☎ 79 16 98

PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6 ☎ 79 50 75

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ MONREAL Olarte, 10 ☎ 79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎ 79 48 77

REUMATOLOGIA -BIZKARREZURTERAPIA

OSASUN GIDARAKO IZENEMATEA: 77 08 15

Udal



Aurrekontuak

ZIRRIBORROA. 1995eko apirilaren 11ko Plenoan onartzekoa

Aurrekontu orokorra

2.804.781.068 pta.

Sarrerak

- Zuzeneko zergak549 milioi
- Zeharkako zergak85 milioi
- Tasak, etab.410 milioi
- Transferentzia arruntak1.233 milioi
- Ondarezko sarrerak35 milioi
- Inbertsio errealak inorenganatzea50 milioi
- Kapitalaren transferentzia163 milioi
- Finantz aktiboen aldaketa13 milioi
- Maileguak259 milioi

Gastuak

- Pertsonal gastuak645 milioi
- Zerbitzu eta ondasunen erosketak501 milioi
- Maileguen interesak181 milioi
- Transferentzia arruntak557 milioi
- Inbertsioak646 milioi
- Kapitalaren transferentzia110 milioi
- Finantz aktiboen aldaketa13 milioi
- Mailegu amortizazioa144 milioi



GIPUZKOAKO KONTSEILARIAK

ASESORES DE GUIPUZCOA

Zerbitzu fiskalak • Kontabilitatea
Zerbitzu laboralak • Auditoriak
Zerbitzu Juridikoak

Otalaria Lizentziatua, 4 etxabea
Tfnoa: 79 93 11ARRASATE

GOBERNU-ORGANUAK: 33.799.690 (%1,2)

Pertsonal gastuak.....	29.802.190
Funtzionamendu gastuak.....	855.000
Eudeleko kuotak.....	750.000
Argitalpenak.....	3.000.000
Dietak eta bidaiak.....	142.500

KULTURA ETA KIROLA: 310.498.430 (%11)

Pertsonal gastuak.....	52.894.430
Kultur iharduera.....	10.300.000
Jaietarako.....	19.700.000
Txikilandia.....	2.299.000
Aukearen defizita.....	83.500.000
Arrasate Musikal.....	37.300.000
Ludoteka.....	4.700.000
Ferixalekua.....	40.000.000
Hospitala.....	10.000.000
San Frantziskoko erretaula.....	3.500.000
Museo Industriala.....	2.000.000
AUKEAko Inbertsioak.....	15.000.000

HEZKUNTZA: 191.022.022 (%6,81)

Pertsonal-gastuak.....	17.861.850
Hezkuntzarako subentzioak.....	10.160.000
Ondasun eta zerbitzu erosketa.....	19.203.000
Inbertsioak.....	43.000.000
Almen.....	14.867.679
San Biator.....	12.841.818
Umezaintza.....	3.458.791
Institutoa.....	3.562.386
La Merced.....	6.132.867
San Frantzisko Xabier.....	21.383.631
Ferixalekuko Ikastola.....	36.250.000

EUSKARA: 175.845.282 (%6,27)


Pertsonal gastuak.....	96.620.768
Euskara Batzordearen subentzioak.....	46.166.777
Ondasun eta zerbitzu erosketa.....	13.350.000
Bekak.....	1.707.737
ARKOko lokalen konponketa.....	10.000.000
Euskaltegioko ekipo informatikoa.....	4.000.000



Mikel Elorza Etxebarria
Aseguru Artekaria
Arrisku Gerentea

Erregistro zenbakia: DGS F-95 kolegiatu zenbakia: 68.109, erantzukizun zibileko aseguru kontzertatua eta berme osatua 1992ko apirilaren 30eko 15. artikulorearen arabera.

Erdiko Kale, 4 etxabea. Tfnoa./Faxa: 77 13 09 ARRASATE
Boulevard, 11, 5. A. Tfnoa: 43 04 14 Faxa: 43 11 01 DONOSTIA



KONTRATAK
iRUROK
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis
Tfnoa./Fax: 77 09 92
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea
Tfnoa: 78 21 82
OÑATI

Angoisa, S. A.

ETXEBIZITZEN PROMOZIOA

Munar, 10 ARRASATE Tfnoa: 79 83 08

OSASUNA: 196.709.240 (%7,01)

Pertsonal gastuak.....	32.752.746
Iturbide Egoitzako defizita.....	46.000.000
Etkez-etxeko laguntza.....	50.000.000
Pobrezia.....	34.000.000
K.I.U.Beko ekintzak.....	1.200.000
Hirugarren mundua ONGen bidez.....	4.000.000
Drogomenpekotasuna dirulaguntzak.....	3.280.000
Emakumea dirulaguntzak.....	2.750.000
Hirugarren adina dirulaguntzak.....	8.611.382
Elbarrituen garraio zerbitzurako.....	3.200.000
Iturbide egoitzako inbertsioak.....	4.600.000

HIRIGINTZA: 523.825.566 (%18,67)

Pertsonal gastuak.....	65.315.766
Garapen ekonomikorako ekintzetarako inbertsioak.....	55.000.000
San Juan parrokia 2. fasea.....	25.000.000
Argizatzea.....	10.000.000
Uharkape.....	135.000.000

Araba etorbideko urbanizazioa.....	10.000.000
Zaldibarreko urbanizazioa.....	9.000.000
Ur eta saneamenduko inbertsioak.....	20.000.000
Hiri Zaharrerako plana.....	25.000.000
Estazio Zaharra.....	25.000.000
MCM erosteko.....	20.000.000
Udal ondareko inbertsioak.....	10.000.000
San Kristobal hilerria.....	10.000.000
Ondasun patrimonialak erosteko.....	10.000.000
Bideak asfaltatzea.....	10.000.000
Garagartza oinezko bidea.....	8.000.000
Mugarritteko espaloia.....	5.000.000
Aldaiko urbanizazioa.....	3.000.000
Bide publikoen urbanizazioa.....	6.000.000
Egitamu Orokorra.....	8.000.000
Ingurugiroa.....	5.000.000
Aramaio erreka.....	3.000.000
Maalako saneamendua.....	2.000.000
San Andres plana.....	1.000.000
Grupo San Juan plana.....	2.500.000
Aparkalekuak.....	1.000.000
Informatizazio topografikoa.....	8.000.000

ERAIKUNTZETARAKO ALMAZENA

Keramikak, terrazoak, marmolak, baldosak, porlanak, kolak, aridoak...
Adreiluak, teilak, odiak, onduline, aisiantek eta eraikuntzetarako egokiak.



ERAKUSKETA
Otalora 1, behea
Tfnoa: 79 07 20

ALMAZENA ETA BULEGOAK
Meatzerreka, 6
Tfnoa eta Faxe: 79 14 28

PERTSONALA: 261.188.337 (%9,31)

Pertsonal-gastuak	155.303.513
Enplegu iharduerarako	17.170.628
Telefonoa eta mezulari zerbitzua	7.000.000
Udal aseguruak	9.500.000
Ekipamendu informatikoa	8.000.000
Iragarkiak irratian eta prentsan	3.500.000
Notaritza eta erregistroa	3.000.000
Irudi korporatiboa	1.000.000

ZERBITZUAK: 684.651.557 (%24,41)

Pertsonal-gastuak	190.743.902
Kale garbiketa	91.112.000
Argiteria publikoa	27.350.000
Ur-zerbitzurako erosketak	19.660.000
Parke eta lorategiak	66.500.000
Mankomunitateko zerbitzuak	76.777.949
Ur potzuergoa	73.711.000
Inbertsioak	31.450.000

AUZOAK: 72.280.729 (% 2,57)

Inbertsioak	21.000.000
Mendi-nekazaritzako inbertsioak	10.000.000
Baserri-bideak	20.000.000
Auzoetako jaiak	6.572.041

GAZTERIA: 24.953.873 (%0,89)

Pertsonal-gastuak	6.138.873
Gaztedia ekintzak	10.000.000
Subentzioak	6.750.000
Garibai etxeko teilatua	1.000.000


FINANTZ ZORRA: 325.398.842 (% 11,6)

Maileguen interesak	181.311.014
Maileguen amortizazioak	101.226.543
Diputazioari itzuli beharrekoa	42.861.285

**BRUES, S.A.****Eraikuntzak**

Errotaburu pasealekua, 1 10 solairua
Tel.: 31 12 19
Faxa: 31 12 22
DONOSTIA

Erguin, 5 etxebaia
Tel.: 79 15 73 / 79 83 45
Faxa: 79 53 02
ARRASATE

**Anboto****INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIA**

Iturriotz, 11
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 48

**HIRI ETA ESTATU BARNEKO
ETA NAZIOORTEKO BIDALKETAK**

Bizkaia Etorbidea, 16 etxebaia • Tfnoa: 79 92 77 (4 linea)

Debalde

3. z

DEBA BAILARAKO MERKATAL GEHIGARRIA

Errotalde Jauregia, z/g - 20570 BERGARA Tfnoa: 76 36 61 - Faxa: 76 08 19

Zure iragarkien zain

- Zerbait saldu, erosi edo esan nahi baduzu, IRAGARKI MOTZEN atala eskaintzen dizugu
- **80.000 irakurlerengana** zure mezua zabaltzeko
- **Deba Bailaran 19.000 etxeetara** iristeko
- 300 pta.gatik zure eskaintza lau haizetara bidaltzeko

NOLA BIDALI ZURE IRAGARKIA:

IDATZIZ

Debalde
Errotalde Jauregia
20570 BERGARA

TELEFONOZ

76 36 61

FAXEZ

76 08 19

PERTSONALKI

Jo ezazu
zure herriko
astekarira

Argitaratzaileak:

- Arrasate Press
- Berrigara
- Elgoibarren
- ...eta kitto!

Publizitatea:

- Imanol Amiano
- Antxon Iriondo

Maketazioa:

- J. L. Gorostegi

Tirada:

- 19.000 ale

Inprimategia:

- Gertu Koop.
(Oñati)

MUTRIKU ORMAK, S.L. Tel. 60 39 64

Bulegoa : Txurruka Dotres, 6 - 2. A



SALGAI (Zubia Alde)


- 3 Etxebizitza (Buhardilla erara)
- 2 etxebizitza
- Hamahiru milioitik aurrera
- Garaje itxiak

**ERAGILEAREN
ESKUTIK
ZUREGANA**

82 m2ko LOKALA KOMERTZIALA
Kutxaren bulegoaren ondoan

GOI MAILAKO MATERIALAK

SALGAI





txiki-park

XARTEL HAU MOZTU
ETA EKARTZEN BADIQUZU
PRESKAGARRI LATA BAT
OPARITUKO DIZUGU.



ESKAINZA HONEK ADIRILA ETA
MAIATZA
BITARTEAN IRAUNGO DU

ORDUTEGIA

ASTEARTETIK OSTIRALERA: 4'30-9

LARUNBAT, IGANDE ETA

JAIEGUNETAN: 10'30-2 / 3'30-9

ASTELEHENETAN ATSEDENAGATIK
ITXITA.

ZURE SEME
ETXEA NAHASE
EKARRI ITZAZ



ME ALABEK

SEN BADIZUTE,

HAU GEURERA.

ZURE SEME ALABEK IZUGARRI
ONDO PASATU DEZATELA NAHI BADUZU,
EKARRI ITZAZU **TXIKI-PARKERA**.
GIPUZKOAKO HAUR PARKERIK
HAUNDIENA: TEILATUPEAN 1.300 M2
JOLASEZ ETA DIBERTSIOZ BETERIK.

BOLAZ BETETAKO PISZINA HAUNDIAK,

TXIRRISTA ERRALDOIAK,

MENDI PUZGARRIAK,

KOLORETAKO LABIRINTOAK

ETA ZURE HAURREK ASMATU
DEZAKETEN EDOZER.

TXIKI-PARKEN LAGUN MORDO BAT
EZAGUTUKO DITUZTE ETA

URTEBETETZE FESTA

ALAIENAK OSPATU
AHAL IZANGO DITUZTE.

HAU GUZTIA

GURE ZAINTZAILE

TREBATUEN LAGUNTZAZ.

BITARTEAN, GURE IKUSGARRIKO

KAFETEGITIK

LASAI LASAI IKUSI AHAL IZANGO

DITUZU SEKULA EZ BEZALA DIBERTITZEN



txiki-park

IZUGARRIZKO JOLAS GIROA

LANEGUN ETA LARUNBATETAN
500 PTA./ORDUKO.

URTEBETETZE FESTA:

1.100 PTA. 2 ORDU T'ERDI (GUTXIENEZ 10 LAGUN)
SEKULAKO MERIXENDIA...

TARTA TA GUZTI.

PARKING HAUNDIA

ETA AUTOBUSENTZAKO GELTOKIA
ATEAN BERTAN.

ERREKALDE ETORBIDEA

366193 TELEFONOA

DONOSTIA



Iragarki Merkeak

ETXEBIZITZAK

- Bi pisu alokatzen ditut Bergarako San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.
- Etxea daukat salgai Bergarako Zubiaurre kalean. Eguzkitsua. ☎ 76 19 04.
- Pisua alokagai Eskoriatzan. 97 m². Sukaldea, 3 gela, terraza. ☎ 71 43 51. Gaueko 9etatik 11etara.
- Apartamentua daukat Jakan. Udaran alokatzeko. ☎ 74 15 22.
- Apartamentu bat daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua. ☎ 74 16 57.

- Pertsona bat behar dugu pisu bat osatzeko Donostian (Amaran). ☎ 61 93 14. Deitu gauez.
- Pertsona bat behar da pisua betetzeko Donostian. ☎ 76 25 61. Maite.

LANA

- Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.
- Historialari bat eskaintzen da genealogia egiteko. ☎ 88 30 723. Arkaitz. Iluntzeko Setatik aurrera.
- Karta astralak egin eta tarotekoak botatzen dira. ☎ 76 07 87. Jabier.

GARAJEAK

- Garajea saltzen dut Bergarako Boni Laskurain kalean. ☎ 76 15 64.
- Garaje bat saltzen da Eibarko Asua-erreka kalean. ☎ 86 12 71.

SALEROSKETAK

- Lorito bat saltzen dut kaiola haundi batekin batera. ☎ 74 26 32. Txomin.
- Kanping-denda salgai. Oso handia eta egoera onean. ☎ 74 15 22.
- Bi oheko gela alokatzen da. ☎ 79 07 73.
- Bigarren eskuko altzariak salgai. ☎ 79 23 97 / 79 52 80.

- Super nintendo kotsola bat saltzen dut. Mando batekin, 8 jokurekin eta adaptadorea amerikar eta japoniar jokuentzat. Dena 23.000 pta. ☎ 74 05 80 / 74 18 34. Asier.
- Matrimonio logela oso bat, 90eko bi ohe dituen logela oso bat, matrimonio logela puente bat, sala oso bat eta sukalde oso bat saltzen ditut trasladoagatik. ☎ 74 33 19. Itik 3etara / 7,30etatik 10etara.
- Cuerpo Minolta 7.000 bat saltzen dut. Prezio oso interesgarria. ☎ 74 04 38 / 74 08 00. Aitor.
- Botoidun akordeoia erosiko nuke. ☎ 76 28 86.

Manuel J. Perona

ORTODONTZIA
EGOKITUA
ZEURETZAKO

EE.BB.ko Kaliforniako
Roth Williams Center-en diplomatua
R.P.S. 216/94

Haur eta Helduen Ortodontzia

DATO, 19 - 1.
Tfnoak: (945) 23 29 61 / 23 32 12
01005 GASTEIZ

Carrión
música, s.a.

Instrumentu musikalak
Pianoak: Yamaha, Samick, Kawai...
marka guztiak.
Kitarra elektrikoak,
anplifikagailuak, teklatuak, MIDI
sistemak. Zerbitzu teknikoak.
Tabernak eta diskotekak
soinuztatzen ditugu. P.A. Ekipoak.




Manuel Iradier, 20
☎ (945) 23 07 49
Faxa: 23 14 25
01006 GASTEIZ

MOBILHOMENTZAKO PARTZELAK SALGAI

Baldintzak bereziak

LIZARRA
Kanpina

Informa zaituz
TI : (948) 546436



M^o NIEVES ALVAREZ GARCIA
AUDIOPROTESISTA

Ziur al zaude erabiltzen
dituzun audifonoek
entzun dezakezun guztia
entzuarazten dizutela?

EUSKADIKO
ZENTRU
AUDIOPROTESIKOA

Behar bezalako adaptazio
batek entzuteko
ahalmenak
mugatzen ditu.

DATO, 18 - 4. TFNOA. (945) 13 76 01
01005 GASTEIZ

Futbito 94-95

ZALDIBAR KO Txapelketa

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Fosforosek eta Argi Ibilik ez dute galdu 2. fasean

Bi talde daude partidurik galdu gabe bigarren fasean, Fosforos eta Argi ibili hain zuzen ere. Fosforosek lau partidu irabazi ditu, 30 gol sartu eta 7 jaso, zortzi punturekin D taldeko liderra da. Argi Ibilik ere lau neurketa irabazi ditu, 29 gol ditu alde eta 5 kontra. Hauek ere zortzi puntu dituzte eta A taldeko jaun eta jabe dira.

Jardunaldi honetan Argi Ibili izan da atera begira talde trebeena, Hireiri 13 gol sartu zizkion eta. Fosforosek 10 diana sartu ditu. Bestalde,

Irati STS eta Los Heredias taldeen arteko partidua lehiatsua izan zen eta jokatu beharreko minutuak jokatu ondoren, Iratikoeak irabazi zuten 6 eta 4. Ganbelasek azkenean 3 eta 2ko garaipena lortu zuen Autos Muru-ren kontra, eta Cerverceria Leintz-ek lortutako emaitza ere aipatzeko modukoa da, zortzi gol sartu zizkion Nuevo tabernari. Fase honetan talde bakarra dago partidurik irabazi barik D taldeko Ojo Avisore, ez du punturik, bost gol baino ez ditu sartu eta 24 jaso.

Arreta
haundiko
sukaldea

UGARAN
jatetxea

Giro
abegikorra

Bigarren fasea

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	4	4	0	0	29	5	8
PERRAHOTSA	4	3	1	0	15	11	7
EQUUS BTR	4	2	1	1	18	16	5
PEPELUS	4	0	3	1	13	16	3
HIREI	4	1	1	2	15	26	3
ARTZANKOS UDALAITZ	4	0	2	2	14	19	2
ORLANDO PIRATAS	4	1	0	3	11	17	2
LOS DIMY	4	0	2	2	10	15	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC SURCOS	4	3	0	1	27	12	6
PUB PEOPLE	4	2	2	0	20	15	6
LOS HEREDIA	4	2	1	1	24	16	5
IRATI STS	4	2	0	2	18	16	4
SOKOAKOAK	4	2	0	2	13	21	4
D.A. IRIZTU	4	1	1	2	12	24	3
LORATEGI POTROAK	4	1	0	3	11	17	2
MSM INGENIER	4	1	0	3	13	17	2

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	4	4	0	0	30	7	8
CER LEINTZ	4	3	1	0	21	9	7
ZULOAK	4	3	0	1	21	9	6
TOTEM	4	2	0	2	14	12	4
PETROLEROS	4	1	1	2	8	14	3
BUKANAK	4	1	0	3	15	28	2
NUEVO TABERNA	4	1	0	3	10	2	1
OJO AVISORE	4	0	0	4	5	24	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	4	3	1	0	14	3	7
SUM. UGARTE	4	3	1	0	16	6	7
ADELAIDA HAIZEA	4	2	2	0	11	5	6
TRIKITI	4	1	2	1	8	6	4
ZOTZ	4	1	2	1	13	10	4
GANBELAS	4	1	0	3	5	14	2
AUTOS MURU	4	0	1	3	6	14	1
KE OXTIAS	4	0	1	3	6	21	1

Uribe auzoako Futbito Txapelketa

A Taldea

Berza Mutante.....6
Leya.....6
Exc. Lete.....4
A Las 9 No.....4
La Banda.....3
D.K.B.....2
Borrock'n Roll.....2
Energizer.....2
Minar Txiki.....1
CD Arko.....0
Holakaustro Kanibal.0

B Taldea

Blackburn.....6
Arrasate Kirolak.....6
Jo Ta Akabau.....6
Eztanda egin arte....4
Tronkoteak.....4
Trotabares.....3
Amaral.....1
Pier No Doy Una.....0
Baneuko.....0
Los Intocables.....0
Orkatz.....0

D Taldea

Uglus Txinato.....5
Balon Rojo.....5
Ke Oxtias.....4
Los Dimy.....4
Zigarrola.....4
Arrasate Zoo.....3
Equus BTR.....2
No Comment.....2
Garajauke.....1
Astoen Bila.....0
Eman Bidea.....0

E Taldea

Kamasutra.....6
Borrock'n Roll.....6
Koka Juniors.....5
The Barrio.....4
Dribling.....3
Hirei.....2
Extintors Foruen.....2
Ganbelas.....2
Lo + X.....0
Kurtze Txiki.....0
Telleria A.....0

F taldea

Salenco y Kon.....6
Lautherbrunen.....6
Carazon De Encina.4
Iluna Taberna.....4
Gallinero.....3
Txeyenex.....3
Bodega Anboto.....3
Berango Suk.....2
Elisabeth.....1
Euskal Suporters.....0
Sukar.....0



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Argiztapena
- * Instalazioak
- * Bobinaketak
- * Automatismoak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
 Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
 ARRASATE



5. jardunaldiko partidurik erakargarriena Fosforosek eta Cerveceria Leintzek jokatuko dute domekan 12etan. Jardunaldiko partidua izango da. Dena dela, beste neurketa interesgarri batzuk ere jokatu dira: Zapatuan goizeko 9etan Bukanak eta Petrolerosen artekoa. Ordu bietan Irati STS eta Lorategi Potroak izango ditugu lehian. 6etan, oster, Argi Ibili eta Artzankos Udalaiz. Domekan jardunaldiko partiduen aurretik, 11etan, Autos Muruk eta Ke Oxtiasek jokatu dute.

BELARRIRA

◆ **Zigorra.** Iban Guridi Zuloakeko atezainak bi partiduko zigorra bete beharko du, epailearekin arazoak izan zituelako zapatuan. Zuloakek Petrolerosen kontra jokatu zuen zapatuan goizeko 10etan.

◆ **Aste Santuan jai.** Astebukaera honetan normaltasun osoz jokatu da jardunaldia baina apirilaren 15-16eko asteburuan atsedena izango dute Zaldibarko jokalariek.

◆ **Uribe-Auzoan atsedena.** Uribe-auzoa txapelketan bost taldek izango dute atsedena jardunaldi honetan: DKB, Pier Nodoyuna, Los Dimy, Dribling eta Elisabeth taldeek.

◆ **Golak.** Uribe Auzoa Txapelketan 3. jardunaldia jokatu da eta 198 gol sartu dira. Gol gehien Uglys Txinatok sartu ditu 16 guztira, 12 golekin Lautherbrunen dago eta 11kin Arrasate Kirolak. Zaldibarren, berriz, 122 gol sartu dituzte 4. jardunaldian. Argi Ibili 13 golekin izan da talde goleatzaileena

EMAITZAK

A Taldea

Argi Ibili 8 - Orlando Piratas 1
 Equs BTR 5 - Pepelus 5
 Hirei 3 - Perrahotsa 5
 Artzankos Udalaiz 3 - Los Dimy 3

B Taldea

Irati STS 5 - MSM Ingenier 2
 AC Surcos 10 - D. A Iriztu 1
 Los Heredia 8 - Sokoakoak 3
 Lorategi Potroak 4 - Pub People 8

D Taldea

Nuevo taberna 1 - Zuloak 5
 Fosforos 10 - Bukanak 1
 Cerv. Leintz 1 - Petroleros 1
 Ojo Avisore 2 - Totem 5

E Taldea

Adelaida Haizea 4 - Trikiti 1
 Sum. Ugarte 4 - Autos Muru 2
 Mikelos 3 - Ke Oxtias 0
 Zotz 5 - Ganbelas 1



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

ASTEBURU HONETAN

LARUNBATA 9

Zaldibar

- 8.50 Bukanak - Petroleros
- 10.00 Sokoakoak - D. A. Iriztu
- 11.00 Zuloak - Totem
- 12.00 Equis - Hirei
- 13.00 AC Surcos - Los heredia
- 14.00 Irati STS - Lorategi Potroak
- 15.00 Nuevo Taberna - Ojo Avisore
- 16.00 Adelaida Haizea - Zotz
- 17.00 Orlando Piratas - Los Dimy
- 18.00 Argi Ibili - Artzankos Udalaiz
- 19.00 Sum. Ugarte - Mikelos

IGANDEA 9

Zaldibar

- 8.50 MSM Ingenieria - Pub People
- 10.00 Trikiti - Gabelas
- 11.00 Autos Muru - Ke Oxtias
- 12.00 Fosforos - Cer. Leintz
- 13.00 Pepelus - Perrahotsa

Zaldibarko epaileek planto egin dute

“Ezin dugu gehiago eta epaitzeari utzi egin behar diogu”. Hauxe erabaki zuten Zaldibarko epaileek hirugarren jardunaldian. Goizeko 10etan txistua poltsikoan gorde eta bertan behera utzi zuten lana. Egoera ikusita antolakuntzakoek epaitu behar izan zituzten neurketak. Antolatzaileek epaileekin egon den arazoa argitzeko eta aurrerantzeko asmoak azaltzeko eskutitz bat idatzi dute:

“Aste honetan Zaldibarko txapelketako epaileek arbitratzeari utzi diote. Izan ere, epaileak ez daude jokariengandik jasotako tratua jasateko gertu. Hori dela eta, zapatuan 10etako neurketa epaitu ondoren, aurrera ez jarraitzea erabaki zuten. Hemendik aurrera, antolatzaileon eskuetan gelditzen da arbitraien arazoa. Baina guk, geuk, argi utzi nahi dugu jokatzeko ari diren taldeengandik errespetu gehiago eskatzen dugula, jakin badakigu inor ez dela perfektua eta akatsak edozeinek izan ditza-keela, guk ere, jakina”.

URIBE AUZOA
Futbito
Txapelketa



LARUNBATA 9

Iturripe A

- 9.00 The Barrio - Borrock Roll Pro.
- 10.00 Berza Mutante - Exca. Lete.
- 11.00 Extintors Foruen - Koka Juniors
- 12.00 La Banda - Borrock'n Roll
- 13.00 Baneuko - Trotabares
- 14.00 Eztanda egin arte - Los Intocables
- 15.00 Gazte Txokoa - Uglys Txinato
- 16.00 Gallinero - Sukar
- 17.00 Los Dimy - Arrasate Zoo
- 18.00 Blackburn - Arrasate Kirolak
- 19.00 Balon Rojo - Equis BTR

Iturripe B

- 12.00 Ke Oxtias - Garajauke
- 13.00 Telleria - Kurtze txiki

- 14.00 Berango, Suk. - Iluna Taberna
- 15.00 Eman Bidea - Astoen Bila
- 16.00 Holokaustro Kanibal - Munar Txiki
- 17.00 Dribling - Lo + X
- 18.00 DKB - A Las 9 No
- 19.00 Txeyenex - Corazon de Encina

IGANDEA 9

Iturripe A

- 11.00 Elisabeth - Bodega Anboto 19ers
- 12.00 Leya - Arko
- 13.00 Pier Nodoyuna - Tronkoteak

Iturripe B

- 11.00 Orkatz - Jotakabau
- 12.00 Kamasutra - Hirei
- 13.00 Lautherbrunen - Salenco y Komp.

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

● Josu Zabala

Enpresen etorkizunaren langile

Ikerlaneko Diseinu eta Produkzio Saileko zuzendaria da Josu Zabala azkoitiarra. Bere lanbidea dela eta enpresa munduko atzeritar ugariarekin egoteko aukera izaten du, eta ondorioz teknologia munduko berri asko izaten ditu. Azkena Gnosis proiektuaren aurkezpen ekitaldia izan zen.

- Zer da Gnosis?

- Gnosis IMS programaren ataletariko bat da. IMS-a herrialde desberdinen arteko garapen eta ikerketa programa bat da, produkzio sistema inteligenteei zuzendua eta japoniarren ekimenez sortutakoa. Proiektu hauek mundu mailakoak dira, baina produkzioaren ikuspuntutik ez dute oso helburu zehatzik; oraingo ez dago ezer produzitzen hasteko planik. Honelako proiektuen bidez gehienbat elkarrekin lana egiteko gaitasuna neurtu nahi da, ea zenbaterainoko aukera dagoen horretarako. Gauza konkretuetan sartzeko oraindik urte batzuk pasa beharko lirateke, eta orain arte egin dena, 1992tik, aukeren ikerketa izan da.

Azkenean Gnosis-en inguruko mintegian aipatzen zen

ideia nagusia hori zen: posible izan dela elkarrekin egotea eta elkarlanerako borondatea egon badagoela.

- Eta aurrera begira zer?

- Orain, teoriarik behintzat, eta dauden zalantza eta mesfidantzak baztertzen badira, helburuak markatzeko garaia da.

Europar antzerako esperimentuak ezagunak dira, hor daude esate batera Eureka edo Sprit bezalako programak. Programa hauek lanerako eremu handi batzuk dira, eta bakoitzak bere espezialitatean dihardu. Programa horiek fase edo epe desberdinetan garatzen dira eta fase bakoitzean izugarriko diru pilo galanta erabiltzen da, baina izugarria eh! eta hor estatuek ere dirua jartzen dute.

Gnosis-en kontua berdina da, baina Europako eremutik mundu osoko eremura saltoa eginda.

- Maila horretan posible da elkarlana?

- Zaila esango nuke, Europa mailan ere gertutasun handiagoa egonda zaila bada... Hasteko kultura desberdinak daude, garapen maila ere ez da berdina, konpetentzia borrokak gertatzen dira, batzuk duten dena ematen dute



beste batzuk ez. Honelako proiektuetako ereduak beti antzerakoa izaten da: 3 edo 4 enpresa, Ikerlanen moduko zentro teknologikoren bat eta unibertsitatearen bat. Ahal den neurrian interesgarria enpresak parte hartzea izaten da, beraiek baitira produktua egin eta hobetu behar dutenak. Unibertsitateen jarrera izaten da zabalena, beraien interesa ikastea da eta, normalean ez dute ezer izkutatzen. Zentro teknologiko eta enpresek neurri batean ematen dute dena, hartutako konpromezuaren arabera.

- Mundua txiki geratu da?

- Errealitatea da hori. Orain 8-10 urte ia sinestezi-na zirudien europarrekin lan egitea, arraroa zen, eta orain hori gainditu da, mundu mai-

lan ari gara. Beste errealitate bat zera da: honelako programetan bakarrik mundu garatuko herrialdeek hartzen dutela parte, Gnosis-en esate batera, ez dago Afrikako ordezkariarik. Argi dago honelako egitura batean garatuta ez dauden herrialdeak baztertuta gelditzen direla, baina ez helburu bezala, honelako proiektuetan sartzeko gaitasunik ez dutelako baizik.

- Euskaldunok nola gaude kokatuta garapen lasterketan?

- Nahiko txukun eta Estatu mailan aurrean. Behar bada ez dugu beste batzuk beste teknologia edo aurrerapen izango, baina parte hartzen dugu eta horrek besteen kultura ezagutzeko aukera ematen digu, informazioa eskuratzea eta horrek du benetako garrantzia, informazioa eduki eta behar bezala erabiltzea. Gnosis-en gakoa, eta horregatik hartu genuen mintegia Ikerlanen, dagoen informazioa ondo erabiltzen ikastea litzateke.

● **“Elkarlanean Europako eremutik mundu osoko eremura egin nahi da saltoa”**

Zinegotzi izateari agur esango Zerga ordaindu

Beñardo Kortabarria

Hauteskunde giroan berriak ei dira berri; ondorengo lau urteko agintaldirako alderdiek proposatzen dituzten zerrendak hain zuzen ere. Dena den, Pleno aretoko ezarlekuetara darman lasterketari irteera ofiziala eman arte, zaharrak ere badira berri. Horregatik ondorengo lerroetan Agustin Ibarluzea "Txispas", Pedro Mari Ruiz de Azua, Juan Jose Uriarte "Bermi" eta Jose Rodriguez-en iritzia jasotzeko aukera, zinegotzi izateari utzi dioten edo laister utziko dioten politikariak.

"Zinegotzi izatea aberasgarria da, nahiz eta lan asko egin behar. Tramite hori bete behar izateak merezi du. Zinegotzia herritik hurbil egoten da, eta gauzak egiten diren edo ez ikusten da, ondo egiten diren edo ez". Pedro Mari Ruiz de Azuaren hitzak dira horiek, eta zehatz mehatz ez, baina oso antzerakoak esaten zituzten beste hirurek, behar bada zerbait berezia aipatzekotan, Bermik "eskua hartu arteko zailtasunak" eta Jose Rodriguezek "herriko gaien inguruko erabakiak hartzen diren tokian egotearen garrantzia" aipatzen zituzten.

Herriarekiko hurbiltasuna eta zinegotzi karguak badute



Arerio politikoak izan arren harreman ona dute zinegotziek.

zerikusik, zinegotzia, herriak aukeratutako pertsona izateaz gain, normalean bertan bizi izaten delako. Hortaz, argi dago herriko arazoak ezagutzeko aukera ezin hobea dela, baina hurbiltasun hori mesederako ala kalterako ote da? akulu ala oztopo? "Hurbil baino sartuta egon naizela esango nuke -zioen Txispasek- beti izan dut harremana gazteria eta herriko kultur taldeekin. Gauza guztiak ez genituen seguruen ondo egingo, baina parte hartzeko jendea aukera eman diogu eta entzuteko ere prest egon gara. Kalera irten eta lasai ibiltzen gara, kontzientzia lasai dugunaren seinale". Bermi ere antzerantz mintzatzen zen, denen

gustua egitea ezinezkoa zela, esaten zuen eta. Jose Rodriguezentzat oso ona zen jendeak kalean edozein gairi buruz galdetzea, nahiz eta batzuetan galdetzen denari buruzko erantzunik ez jakin. Baina, benetan, denen gustura egiten ala alderdiaren desioa betetzen saiatzen dira zinegotziak? herriaren alde ala alderdiaren alde? "Biak" erantzuten dute ia ahobatez, gai batzuk alderdiaren goaldetik aginduta etortzen direla aitortu arren. Matizazioak ere egon ziren, "...ezin dut esan presoen kasuan goiko inposaketa denik, lagunak dira eta beraien alde egitea ez da egiturak inposatu didan zerbait, herriko problematika-

ren parte da; beraz, ia %100 herriaren alde egin dudala esango nuke" Txispasen alde, "Norberaren programa izanda ere, Udaletxea nola dagoen osatuta kontuan hartzen bada, batzutan zeharo betetzen ez zaituzten akordioak hartu behar izatea" Jose Rodriguezek, eta "Kasu batzutan goitik datorrena ez da egiten" Bermi iritzi.

Igarotako agintaldiak argi utzi duenez, ideologian eta eguneroko dinamikan bada diferentziarik; zorionez, desberdintasun horiek ez ei dute isladarik egunero harremanetan. Beraz, arerio politiko ez hitzegin beharko litzateke. Horrela uste zuen behintzat Bermi "Ikusi besterik ez

iotenek duta

dago, delako esnetzar horrek ordu-erdi irauten du, harreman normala da"; "Neuregatik esango nuke eta besteengatik esatera ere ausartuko nintzateke -zioen Ruiz de Azuak-zorionez inork ez diola besteari agurrik ukatu, giza-harremanek lehengoan jarraitzen dutela".

Orain arte esan dituzten gauzen arabera, ez dirudi oso txarra zinegotzi lanak, zergatik ez errepikatu? ahobateko erantzuna: "Gauzak berriztu behar direlako eta norberak ahal duen mailaraino eman

behar duelako. Guk ordaindu dugu gure gizarte-zerga. Gainera, Udaletxean kome-nigarria da jendea berrizta-tzea". Erdi-broman ere hartu zuten galdera, "Nekatu gara beti gauzak ondo egiten eta beste batzueri ere eman behar zaie aukera".


Txispas, Bermi eta Jose Rodriguezek ez dute zinegotzi-ohiaren bizimodua eza-gutzen, Ruiz de Azuak, berriz, bai, eta lasaitasunaz berba egiten zuen. "Lehen baino hobeto bizi naizen? horixe. Kontuan hartu zinegotziaren kargua ez duela bakarrik norberak eramaten, familiak ere jasan behar duela. Hemen orduak sartzen dira eta". Bermik gehiago ere esaten zuen "Etxean eta baita lanean ere. Nire kasuan lan-tegian desiratzen daude nik noiz bukatu, nolabait normaltasunera bueltatzeko. Eta gainera aukera profesionalak galdu ere egiten dira, ikas-tarorik egiteko aukerarik ez dago... nahiz eta askotan

N

**ekatu gara beti
gauzak ondo
egiten eta beste
batzueri ere eman
behar zaie
aukera.**

entzun Udaletxean egotea ona dela karguz igotzeko".

Ona edo txarra izan, hemendik aurrera Udaletxe-an gutxiago egongo direnez, denbora libre gehiago izan-go dute gaurko lau protagon-istek. Zertarako baina? A ze kuriositatea ezta? ba lasai segi irakurtzen eta asetuko duzue: P. M. Ruiz de Azuak zinegotzi lanari utzi zionean, ortutxo bat jarri zuen eta orain bertan aritzen da aitzurrean, eta uztaren zain dago. Bermik berriz bere hobby-ei hel-du nahi die berriro, pintatu, argazkiak atera.... Txispa-sek, ez du Santamas eta Mari-txu Kajoi jaietako antola-kuntzari uzteko asmorik eta gainera euskaltegira joan eta alfabetatzeko erronka jarri dio bere buruari. Jose Rodri-guezek, berriz, Gasteiza joan denez, auzoko bizilagunen elkartean sartzea pentsatu du. Era guztietako asmoak ikus-ten denez, zortea izan deza-tela bada hemendik aurrera-ko bidean ere!




P. M. Ruiz de Azua
EA

- 7 urte t,erdi zinegotzi.
- Unerik txarrena eta onena: Bat bera ere ez, trauma-rik eta ezta izugarritzko pozik ere.



Agustin Ibarluzea,
"Txispas"
HB

- 8 urte zinegotzi.
- Unerik txarrena: Uhar-kapeko frontoiaren proiektua geldirik egon dela, eta gazteen inplikazio handiegia ez dela lortu.
- Unerik onena: Harre-manak erraztea jende asko-rekin, Zaldibarko Txapel-keta esatebatera.



Juan Jose Uriarte,
"Bermi"
EAJ

- 4 urte zinegotzi.
- Unerik txarrena: ATB eta Arrasate Press egoitza berrian ez ikustea. Dena dela martxan dago gaia.
- Unerik onena: Euska-raren egoera hobetuz doala ikustea eta Irratia martxan jarri dela.



Jose Rodriguez
PSOE

- 4 urte zinegotzi.
- Unerik txarrena: Alka-tetza lortu ez genueneko, hori zirudien eta.
- Unerik onena: Cordo-ba y Oro enparantza eta Makatzenako irteerak egitea.

Urbina Maltzaga eta Askatuaken derbia

Urbina Maltzagak Askatuaken kontra jokatu du domekan eguerdiko 12etan Iturripen. Lehen faseko azken partidua izango da eta Urbina Maltzagak ahalegin berezia egin beharko du garaipena etxean gera dadin. Txus Brizuelak, Coca izan ezik gainontzeko jokalariek geratu izango ditu. Arrasateko taldeak jeitsiera fasea jokatu beharko du nahi eta nahiez eta domekako partiduan lortzen duen emaitza erabakiorra da jeitsiera faseari begira. Arrasatearrek irabaziko balute, jeitsiera fasean Ponnerrada izango lukete aurkari, talde egokia Txus Brizuelaren mutilentzat. Partidua galduta, Urbina Maltzagak Leon edo Vina Costeirenaren kontra jokatu beharko luke, azken jardunaldian talde hauek lortzen duten emaitzaren arabera, erabakiko litzateke noren kontra jokatu. Leon eta Vina Costeira talde sendoagoak dira, beraz, jeitsiera fasea gaintzeko lan gehiago egin beharko luke Urbina Maltzagak.

Jeitsiera fasea bost partidura jokatu da. Urbina Maltzagak kantxa alde ize nez gero, lehen bi partidua apirilaren 21 eta 23an Iturripen jokatu ditu, hurrengo biak apirilaren 28 eta 30an kanpoan, eta berdinketa nagusituko balitz maiatzaren 3an azken partidua Iturripen.



Lehen faseko azken partidua jokatu da Iturripen.

Kantxa alde izateko Arrasateko taldeak derrigorrez irabazi egin behar dio Askatuaki.

Domekako partidua Clubaren eguna izendatu dute. Hori dela eta, Iturripera inguratzen diren guztiek sarrera ordaindu beharko dute. Bazkideentzat 700 pta izango da, bazkide ez direnentzat 1.000 pta, 12 urtetik 18 urte bitartekoek 300 pta eta infantilek eta jubenil bazkideek 100 pezeta. Neurketan ere

txartel batzuk salduko dira, saria Galiziara bidaia bi lagunentzat eta zozketa apirilaren 28an egingo da.

Bestalde, partiduan omenaldi berezia egingo diote Jon Basurkori. Jon Basurkok saskibaloiko lehen taldea osatu zuen duela 25 urte eta Arrasateko saskibaloian egin duen lana eskertzeko orogarri bat oparituko diote. Norgehiagokaren ostean omenaldi bazkaria egingo da.

ESKUBALOIA

Eskubaloikoak azken jardunaldiaren zain

Arrasateko eskubaloitalde Lanzaroteraino joango da Betacar taldearen kontra indarrak neurtzera. Partidua garrantzitsua eta erabakiorra da. Arrasateko taldeak irabaziko balu lehen mailan jarraituko luke. Galduz gero, baina aldea 4 golekoa baino txikiagoa izango balitz, orduan ere, mailari eutsiko lioke. Multzo honetan, dagoeneko, Burgos eta Torrelavegak galdu dute maila, Bejeranok jeitsiera jokatu du eta beste taldea Betacar eta Arrasateren artean erabakiko dute. Arrasatek mailari eusteko aukera asko dituen arren, ez da ahaztu behar partidua domekan goizeko 11.30etan Lanzaroten jokatu dela eta epaileak ere bertakoak izango direla.

Imanol Alvarez entrenatzaileak jokalariek guztiak prest dituen partidua jokatzeko. Betacar taldeari dagokionez esan behar da, talde hotza dela eta ez direla asko sartzen jokuan. Hala ere, hiru jaurtitzaile trebe ditu, jokua banan banako jokaldietan oinarritzen dute eta makalen defentsan dabilza..

Talde bientzat ezinbestekoa da neurketa irabaztea. Arrasatek azken orduko nerbioak kontrolatzen saiatu beharko du eta dakien bezala jokatu.

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

Elektroinjekzio Zerbitzua

LUCAS

ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

BAZAR
TOKI ON

ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA

J. Carlos Guerra, 1
Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

EMAITZAK

Futbola

Hurrengoak:
3. maila: Amorebieta - Mondra. Igandea. 5etan.
2. Erregionala: Mondra - Kilimon. Larunbata. 4.30etan.
Emakumeak: UDA - Mondra. Igandea. 11.45etan.
Jub Ohorezko Liga: Ordizia - Mondra. Larunbata. 5etan.
Lehen Kadeteak: Arrasate - Aitzgorri. Igandea. 12etan.
2. Kadeteak: Arrasate - Eibararrak. Igandea. 10etan.
Infantilak: Hamaika Bat - Arrasate. Igandea. 11etan.

Saskibaloia

Hurrengoak:
EBA Liga: Urbina Maltzaga - Askatuak. Igandea. 12etan. Iturripen.
Seniorrak S-23: Urbina Maltzaga - Ezgar. Larunbata. 4etan.
Juniorrak A: Urbina Maltzaga - Askatuak. Igandea. 10etan.
Kadeteak A: Urbina Maltzaga - Tximista. Larunbata 12etan.
Kadeteak B: Urbina Maltzaga - San Benito. Larunbata. 10etan.
Kadeteak Emak B: Urbina Maltzaga - Eskoriatza. Larunbata. 4etan.

Esquibaloia

Lehen maila: Arrasate 25 - Alcobendas 25
Lehen Territoriala: Zarautz 24 - Arrasate 11
Jubenilak: Don Bosco 16 - Arrasate 20
Jubenilak: Arrasate 15 - Aloñamendi 12.

Hurrengoak:

Lehen maila: Betacar - Arrasate. Igandea. 11.30etan. Lanzarote.
Lehen Territoriala: Bidebieta - Arrasate. Igandea. 12etan. Donostia.
Jubenilak: Urnieta - Arrasate. Larunbata. 4etan. Urnieta.

Futbitoa

Lehen maila: Antenavision 3 - Arrasate 1
Arabako territoriala: Arrasate 3 - Gomar 4

Hurrengoak:

Lehen Maila: atsedena
Arabako territoriala: Jotaeme - Arrasate. Larunbata. 5etan. Abetxuko.

Rugby-a

Lehen maila: Hernani 60 - Arrasate 20
Emakumeak: Irun 20 - Arrasate 5

Hurrengoak:

Emakumeak: Arrasate - Durango. Larunbata. 4.45etan. Gargartzan
Jubenilak: Arrasate - Hernani. Larunbata. 3.30etan. Garagartzan.

Pilota

Paletan: Arrasate 35 - Adurtza 32
Deba Arroa:
Antzuola - Arrasate. Infantilak (18 - 12),
Jubenilak (9 - 22), Nagusiak (22 - 15)
Hurrengoak:
Ohorezko Liga. Azken Partidua
Paletan: Artzanda - Arrasate. Larunbata.
Deba Arroa
Arrasate - Oñaii. Infantil, Jubenil eta nagusietan. Larunbata. 11etan Iturripen.



Zapaturo izango dute zita Ferixalekuko kantxan.

AEDko Gazteen Nesken Liga

Sailkapena

Izenbakuak.....	2
Las Mels	2
Ze Paesstandon	2
Txakolintxintxau.....	2
Orkatz	0
B.G.....	0
Joixon Bertan.....	0
Zure Atzetik.....	0
Ireklas	0

Nesken ligak ekainaren 3a arte iraungo du eta zapaturo goizeko 10etatik ordu bietara jokatu dira partidua Ferixalekuko kantxan. Bederatzi talde daude gutzira. Beraz, astero talde batek atsedena izango du. Estraineko jardunaldian Ireklasek izan zuen atsedena eta bigarren jardunaldian Orkatzek izango du.

Emaitzak

Izenbakuak 3 - Zure Atzetik 0
B.G. 1 - Ze Paesstandon 8
Orkatz 2 - Txatxilintxintxau 6
Joixon Bertan 1 - Las Mels 9

Hurrengoak

10.00 Izenbakuak - Ireklas
11.00 B.G - Txakolintxintxau
12.00 Joixon Bertan - Zure Atzetik
13.00 Las Mels - Ze Paesstandon
Atsedena: Orkatz

Gimnasia Erritmiko Txapelketa Iturripen

Eskolarteko Kirol Gimnasia Erritmiko Txapelketa jokatu da Iturripen kiroldegian zapatuan. Azkoitia, Urretxu, Bergara eta Arrasateko parte hartzaileak egongo dira arratsaldeko 4etan hasiko den txapelketan. Gaztetxoenetatik hasita, Alebinek Infantilek, kadeteek eta jubenelek hartuko dute parte

eta gimnasia erritmikoan erabiltzen diren tresna guztiekin egin beharko dute lan. Arrasateko taldetik 13 neska ibiliko dira lehiatzen. Txapelketa puntuka doa, hau da, puntu gehien lortzen dutenak hurrengo txapelketarako sailkatuko dira eta hurrengo txapelketa apirilaren 29an jokatu da Bergaran.

Begoña
lurrindegia
Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73



Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

FELIPE
MADINA
ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78


“Zarpaildu ahal balira ametsak”

Larraitz Ugarte
(Poesia gazteen mailako lehen sarituaren zatia)

Etsipenez beteriko hausnarketetan mugarantz noa.
Zugana, Heriotza.
Amaigabea den bidean gogoeten zurrunbiloak oztopo.
Begirada hotzak, kolpe bortitzak, zaharkituriko izkribuetan herrenka, noraezean, zerbait aurkitu ezinean eta “zerbait” zer den ez dakidanean.
Idatzi nahi nituzke lainoak, baina irudiak besterik ez dira.
Zarpailu ahal balira ametsak...

Baina errealitatea berriro jalgi da.
Noizbait, nonbait arrotz sentitu nintzen, orduan ez nekien zu zinela existitzen.
Gaur, biziaren liskarrak, eztenak bailiran sortzen zaizkit eta ulertzen ez nuenari mintzo natzaio.
Ironia edo ez arrotzak ezezaguna bilatu du.
Nortasun eza.
Izatearen gakoa, ikusiz ulertua ikusten aditua.

Ura darion iturri zaharra.
Mendea, naturaren gizalegea.
Bizitzaren azken ezustea.
Idatzi nahi nituzke urteak baina iragana besterik ez dira.



“Arrasate”

Karmelo Uribarren (Multzorik onenean saritutako argazkia)

Zoritxartzen nauten gauzen aurrean,
gorroto ditudan jokaeren alboan,
ezintasunak eremu guztiak zeharka ahal ditu nire poesiaren zelaiak ezik.
Pentsamenduen sabotaia urrun heldu da jendearen ahalmena ahaztuz.


Zarpaildu ahal balira ametsak...
Baina errealitatea berriro jalgi da.
Osasuna, oheari lotua.
Samina, bihotzari elkartua
Irri, negar, irri.
Ixtorio lazarri.
Lortua
Jainkoaren nahia.
Agurtzen naiz eta adio, anaia.

LABURRAK

Z E R N A H I A G O ?

Joseba Garcia

“Berango Sukaldeak” ekoa



- Jendeak asko pentsatzen du sukaldeak aldatzeko orduan? Bai, asko pentsatzen du, geroz eta kolore eta barietate gehiago dago eta.
- Zenbat urte iraun dezake sukalde batek? 20 urte, sukalde bat ez da betirako izaten.
- Zenbat denbora behar da sukalde bat montatzeko? Gehienez egun pare bat.
- Gaur egungo aurrerapenekin, ez da sukaldearen “xarma” galdu? Bai, estetikak orain garrantzi handia du eta “goxotasun” pixka bat galdu da.
- Nola hasi zinen lan honetan? Aitak lanera ekartzin gintuen eta ohitura hartu genuen.
- Nork izaten du pisu gehien sukaldeak aukeratzeko? Emakumeak.
- Nola izango dira XXI. mendeko sukaldeak? Martxa honetan jarraituz gero, nork dakil!
- Zer izaten da garestiena sukalde batean? Granitozko gainaldeak.
- Sukalde artean lan egiten duzu, baina zer moduz moldatzen zara zu sukaldean? Oso txarto, ideiarik ere ez dut.
- Tebistan agertzen den pertsonaiarik gorrotatuena? Barrionuevo.
- Irakurtzen duzu egunkaria? Bai, egunero.
- Zenbat ordu lo egitea gustatuko litzaizuke? Zortzikin nahikoa dut.
- Zure horoskopoa? Sagitario.
- Zertan jolasten zenuen txikitan? Kaniketan, Dolar-ean...
- “Oscar”ak eraman dituzten filmeak ikusi dituzu? Ez, azkenaldean ez naiz zinera joaten.
- Aitaren edo amaren antza duzu? Aitarena.
- Non gustatuko litzaizuke txalet bat edukitzea? Azkoagan, andrea bertakoa da.
- Hurrengo hauteskundeetan bozkatzeko prest? Ez, izugarrizko nahasketa dago eta.
- Baduzu koadrorik etxean? Bai.
- Zein aktore sarekin hartuko zenuke kafetxo bat? Kim Bassinger-ekin.

Antzinako jolasen tailerra

Txatxilipurdik antzinako jolasen tailerra antolatu du. Tailerrak apirilaren 3an hasi ziren baina 10ean, 11an eta 26an ere egingo dira. Apirilaren 10ean Santamainako ludotekan izango dira eta gaitzetzeko egunetan Sebero Altuben.

Tailerren helburuetariko bat, antzinako jolasen ikerketa egitea da; partaideak ezagutu, arauak ikasi eta jolastu ahal izan dezaten. Azkenik, antzinako ohiturak ez galtzea izango litzateke helburu nagusia. Txatxilipurdi elkarteak gaur egungo jostailuen sofistikazioak, egurrezko eta latoizko jostailuen desagerpena eragiten duela dio.

Argazki Rallya

Arrasateko Udalak Argazki Rallya antolatu du herriko plazan zapatuko goizeko 10etarako. Gaia “Arrasateko eraikuntza publiko zein pribatuak” izango da. Argazki Rallya diapositibekin egingo da.

Uztailean lan egin nahi baduzu

egin zaitez
TXATXILIPURDIko begirale

Bete beharrak:

- **18 urte beteta izatea**
- **Euskara ongi menperatzea**
- **Haur eta gaztetxoekin harremanak izateko gaitasuna**

Informazioa: Pablo Uranga, 4 Tfnoa: 79 54 46
Epea: apirilak 28a



Elena Irureta

Mila aurpegiko aktorea

Aktorea euskalduna da eta eszenatokietan plató-etan sentitzen da gustora. Gehienok ETBko "A ze parea!" telesailarengatik ezagutuko duzue baina hona, "Mephisto" antzeztera etorri zen Amaia antzokira. Antzerkia telebista baino gehiago maite duela aipatu zuen.

— Zer moduzko esperientzia izan da zuretzat "Mephisto" antzerkian lan egitea?

— Dudarik gabe, oso ona. Hogei aktorek egiten dugu lan Mephiston eta guztiotzako da luxu bat. Arteszenarena oso ekipo handia da, zortzi teknikok egiten dute lan eta oso medio onak dituzte: Normalean ez da horrelako muntaia handirik egiten, beraz, oso esperientzia ona izan da.

— Ez da hau egiten duzun lehen antzeziana, hala ere, ezer gehiago ikasten da antzezlan berri bakoitzeko?

— Bai, jakina. Pertsonaiak desberdinak izaten dira, baita zuzendariak ere, eta nola ez, zuzendari bakoitzak bere modura egiten du lan. Gainera, antzezlan bakoitzean aktore desberdinekin egoten zara eta harremanak aldatu egiten dira. Dudarik gabe, antzezlan bakoitzak gauza berri bat aportatzen du.

— Zein paper daukazu "Mephisto"n?

— Carola Martin, Berlingo



aktorea handiarena da. "Diba" bat da eta Hamburgora gonbidatuta etortzen da muntaia batean parte hartzeko. Azkenean Hamburgon geratzen da eta beno, mila gorabehera gertatzen zaio.

— Telebistan ere oso eza-guna zara. Zer nahiago duzu: antzerkia ala telebista?

— Oso medio desberdinak dira lan egiteko. Antzerkia zuzenagoa da, egunero ikus-entzulego desberdina izaten da eta ikus-entzuleen kopuruaren arabera emankizun desberdina egin daiteke, hau da, ez da gauza bera hoguei lagunendako lan bat antzeztea edo zazpirehuentzat. Dena dela antzerkia

.....
"Dena dela antzerkia telebista baino gehiago gustatzen zaidala uste dut"

telebista baino gehiago gustatzen zaidala uste dut.

— Arteszenako obretako aktoreak lehiaketa publiko bidez aukeratzen dira, baina egia esan, kasting-ei begiratu gero, beti pertsona eza-gunak izenak agertzen dira...

— Ez nago ados horrekin, nire kasua behintzat, ez da hori: Arteszenarekin lan egiten dudana lehen aldia da hau baina beno, Kakatua Berdean lan egin zuten bost aktorek Mephiston egiten dute lan ere. Dena dela, guztira 20 aktore gara, beraz, 15 berriak dira. Horrek esan nahi du beti ez garela aktore eta aktorea berdinak egoten.

— Mephistorena erronka zaila izan da zuretzat?

— Bai, nahiz eta nire papera nahiko txikia izan, erronka zaila izan da. Eta oraindik ere zaila egiten zait, nire papera emakume harro batena da eta. Oraindik ere lotsatu egiten naiz eszenatokira irten behar dudanean. Nire agerraldia oso lotsabakoa da, oso exageratua... gainera, jendeak "A ze parea!" programatik ezagutzen naizenez, eszenatokira ateratzen naizenez, nahiz eta nire papera dramatikoa izan, barrezka hasten da!

— Beraz, nahiz eta esperientziadun aktorea izan, oraindik urduri jartzen zara...

— Gezurra dirudi, baina bai, gainera geroz eta gehiago.

LABURRAK

Eskauten Topaketa Iturrigorrin

Urtero bezala, datorren igandean, hilaren 9an, Gipuzkoako Eskautak "Gorka Deuna" eguna ospatuko dute. Egun honetan gipuzkoako eskaut guztiak Euskal Herriko toki jakin batean elkartzen dira eta aurten, Arrasateko Orkatz Eskaut Taldeari egokitu zaio topaketa hau antolatzea.

Topaketa Iturrigorriko zelaietan izango da eta jai handi bat burutuko dute bertan. Goizean hasi eta arratsaldera arte luzatuko da jaiak. Iturrigorriraino joateko, kotxea Arantzazun utzi eta oinez igotzea gomendatzen du Orkatz taldeak. Iturrigorriko zelaietan joku ugari egingo da eta gazte guztiak daude gonbidatuta topaketa honetara.

Orkestra Ganbararen kontzertua

Arrasate Musikaleko Orkestra Ganbarak, kontzertua eskainiko du zapatuan, arratsaldeko 7etan Amaia Antzokian. Jesus Maria Etxebarriak zuzenduko du orkestra, pianoarekin Arturo Goikoe-txeak lagunduta. Hamazortzi musikari gazte arrasatearrek osatzen duten taldea da hau eta duela bi urte sortu zen. Orkestra Ganbarak M. A. Charpenter, Bach, Boccherini eta Mozarten obrak joko ditu.

ITSASKI ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

"PAL"

burdindegia, brikolage eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

“Do Dia Da Galiza” ospatuko da asteburu honetan

Arrasateko galiziarrek, euren eguna, “Do Dia Da Galiza”, ospatuko dute ostirala eta igande bitartean. Aurtengoarekin, egun hau ospatzen duten laugarren aldia izango da.

Jai egitaraua ostiralean arratsaldeko 6etan hasiko da San Andres auzoan. Kanpai hotsen ondoren, olagarroa, ribeiroa, enpanada eta Santiago Opila dastatzeko aukera izango da. Gauean, “Ciudad de Vigo” orkestrak dantzaldia eskainiko du.

Larunbatean goizeko 10etan, Eibarko Galiziako Kultur Etxeko gaitero eta dantzariekin kalejira egingo da. Zigarrolan hasiko dira eta udaletxetik eta jubilatuetatik pasatu ondoren, elizan

bukatuko dute. Eguerdiko 12etan, Asuncioneke Gure Amaren elizan, meza ospatuko da Parrokiako Abesbatzarekin. Ordu batetan San Andreseko plazan, dantza galiziarrek eta gaiteroak izango dira entzungai eta ikusgai. Gauean berriz, “Marazul” orkestrarekin

dantzaldia goizalderarte.

Azkenik, igandean goizeko 11etan, gaitero eta dantzari taldeekin, folklore dantzak eskainiko dira; ondoren, PANAMA orkestraren emankizuna. Arratsaldean bukaera emango zaie jaiei aipatutako orkestraren dantzaldiarekin.



Ostiralean olagarroa eta enpanada dastatzeko aukera izango da.

ARGITALPENAK

Deba Garaia ARDATZA aldizkari hizpide

ARDATZA aldizkariak, EHNE nekazal sindikatua-ren hamabostekariak, Deba Garaia buruzko suplementua kaleratu du aste honetan.

ARDATZA aldizkariako arduradunek ARRASATE PRESSI adierazitakoan arabera, Maltzaga-Urbina gaia pil-pilean dagoela kontuan hartuta eta bailaran izango duen eragina ikusita, gaurkotasun handiko komarka iruditu zaie Deba Garaia. Hori dela eta, ohiko azterketa sindikala egiteaz gain, Maltzaga-Urbina gaia aztertu dute suplementuan. Nekazaritza ekologikoari buruz bi baserritarrek egindako elkarrizketa, ondare historikoaren berreskurapenari buruz “Kapirixo” taldeari egindako elkarrizketa eta Arrasateko Ingurugiro Eskolari buruzko artikulua, Urbina-Maltzaga-ren inguruan Peio Lasagabasterri egindako elkarrizketa eta Oñatiko bi neska baserritarrei egindakoa ere agertuko dira suplementoan.

Gainera, ohiko tiradari (11.500 ale), 1000 aleko tirada berezi bat gehitu diote Deba Garaian EHNEk duen afiliazio kopuru handia kontutan hartuta.

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07


ARGI PLASTIC
• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean
**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**
Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30




UNIÓN CERRAJERA DE MONDRAGÓN



ALTOS HORNOS DE VERGARA, PERTENECIENTES A LA UNIÓN CERRAJERA



LA GRUA MECÁNICA DE LA FÁBRICA




VISTA GENERAL DE LA FÁBRICA DE MONDRAGÓN

El origen de esta industria de Mondragón se remonta al año 1860, siendo hoy esta Sociedad poseedora de las grandes fábricas de Mondragón, Cigarrola, Aretxabaleta y Vergara, dedicándose esta última a la fabricación de la materia prima, y sean: troques de acero, palanquilla, fierro, rebeldes y toda clase de aceros, que luego son transformados en las otras fábricas en artículos de ferretería en sus infinitas variedades, como son: cerraduras de todas clases, picaportes, pasadores, pernos y bisagras, tornillos de cama, de apriete para camiones, tornos de coche, asas y agaraderos, raudados, fallabas, Remadores, estufas, artículos para pastelerías, como espátulas, entinos, locasas, camas, etc., etc., planchas para planchar ropa, estrizlos, podadores, etc., soportes galvanizados para telégrafos, teléfonos y transmisión de fuerza eléctrica, piezas de arado.



TALLER DE PULIDORES


de hierro colado y maleable, tirafondos y tornillos de vía, tornillos de roca de madera, para carpintería, etc., etc. La indicada Sociedad es también poseedora de varios saltos de agua en las villas de Oñate y Vergara, que dan una fuerza efectiva de 1.200 caballos, además de una turbo-motor, capaz para 720 caballos de fuerza. Se ocupan en sus fábricas 1100 obreros, detalle que por sí solo da idea de la importancia y desarrollo de su industria, cuya manufactura abastecen todo el consumo nacional, además de reservar importantes envíos para el extranjero, principalmente para la América española. Cuenta en sus talleres con cuantos adelantos ha creado la maquinaria moderna en la fabricación de su especialidad, siendo dato de tener en cuenta para juzgar de su importancia su capital activo, que se cifra a la cantidad de 6 millones de pesetas, todo desembolado.



TALLER DE AJUSTE




VISTA DE UNO DE LOS TALLERES DE CERRAJERÍA



FÁBRICA DE TOCHOS

"Album Gráfico del País Vascongado, 1910.



errajera eta Museo Industrialarekin atzera eta aurrera ari garen honetan, ez da gaizki etorriko mende hasierako

liburu batek lantegi horri buruz zekarren informazioa. **Album Gráfico del País Vascongado** liburua 1910ean argitaratu zen eta Zerrajerari buruzko orrialdea da Arrasateri buruz argitaratzen duenaren artetik aste honetarako aukeratu duguna.

Argazkietan, goitik eta ezkerretik hasita, Bergarako Labegaraiak, lantegiko garabi mekanikoa, Arrasateko lantegia kanpotik, pulidorak lanean, ajusteko tailerra, zerrailagintzako tailer bateko langileak eta totxoan lantegia.

Testuak, berriz, honela dio: "Mondragoeko lantegi hau 1860an sortu zen eta gaur egun Mondragoe, Zigarrola, Aretxabaleta eta Bergarako lantegi handien jabe da; azken hori lehengai sortzera dedikatzen da, hau da, altzairuzko totxoak, palankila, flejeak, eta altzairu mota guztiak. Gero ferreteriako gaietan bihurtzen dira beste lantegietan. (...)

Aipatu Sozietatea Oñati eta Bergarako ur saltoen jabe ere bada. Horietan, 1.200 zaldiko indarra lortzen da eta baita turbo-motorea ere, 720

zaldiko indarra lortzeko gai dena. Bere lantegietan 1100 langile daude eta horrexek ere erakusten du euren ihardueraren garapen eta garrantzia. Bertan egindako tresnez estatuko kontsumo guztia hornitzen da eta atzerrira ere bidaltzen da hainbat, Espainiako Amerikara batez ere. Zerrajerako lantegietan bere espezialitateko gaietan sortu den tresneriarik modernoena dago. Datu hori kontuan hartzeko da bere kapital aktiboa, 6 milioi pezeta, juzkatzeko".

IBARRA
Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Monte
taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

URRATS
AHOLKULARITZA

GARIBAL, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

Orain

URKIOLA

jantzidendan
gure puntako markez gain

SNIF, EMOI, DIESEL,
REPLAY, CHARRO, ISLAND,
DANIEL, HECTER, CALVIN KLEIN,
GAULTIER JEANS, HARVEY ROTHSCHILD,
MARITE FRANCOIS GIRBAUD.



RED GLOBE

Bidegurutzeta, 42
BERGARA

URKIOLA modaren puntan!

Nagusi, 9
LEGAZPI

3 HANDIXEK EGUNETAN

Lea eta Aperri memoriale

Apirilak 20, 21 eta 22

Izenemate epea:

Apirilak 14

Prezioa: 3.500 pta

(Tfnoa: 77 12 28)

IBILBIDEA

Zalduondo, Aizkorri, Gatzaga

• • •

Gatzaga, Aramaio, Anboto, Urkiola

• • •

Urkiola, Barazar, Gorbeia, Murua

Antolatzaileak


AEDko Gazteak

• ESAERA •

"Eztabaida bat irabazteko modu bakarra, eztabaidak ez izatea da"

DALE CARNEGIE

• JEROGLIFIKOA •



Nola iritsi ziren korrikalariak?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11				
12		13					
14						15	
					16		17
18							

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Orkatz Skaut taldeko arduraduna. 9. Oztopo. 10. Musika-eskolako 6. nota. 11. Masailari dagokiona. 12. Sufrimendu. 14. Ron zuriz eginiko koktela. 16. Nortasun Agiri Nazionala. 18. Agintzeko boterea duena.

Bertikalak 1. Doinu. 2. Guraso berberren semeak elkarrekiko. 3. (Ald.) Bizkaiko ibilgailuetan. 4. Nobleziako andereak. 5. (Ald.) Mairidire. /. Enbata. 7. Barazki arrunta. 8. (Ald.) Gipuzkoako udala. 13. Udalkiko jantzia. 15. (Ald.) Italiako telebista katea. 17. Neu.

• HOROSKOPOA •

Aries Errenta aitortpena egitea komeni zaizu. Irabazten aterako zara.

Taurus Aurten ez dizute karapaxorik oparitu. Zutaz ahaztu dira.

Gemini Ez zaizu etxean geratzea komeni, Aste Santuan kanpora irten.

Cancer Beti agintzen. Inguruan morroiak dituzulakoan ala?

Leo Nola aldatu zaren, maripuxika galanta eginda zaude.

Virgo Barre egiten duzunean zenbat hagin falta zaizkizun ikusten da.

Libra Zientzilari itxura duzu betaurreko horiek.

Scorpio Gezurretan harrapatuko zaituzte. Zelako lotsa!

Sagitarius Maitalea aurkitu ei duzu. Egia bada kontuz ibili.

Capricorn Espeziala zarela esaten dizutenean, espaziala zarela esan nahi dute.

Aquarius Zurekin lan egitea ezinezkoa dela esaten dute zure lankideek.

Piscis Auzolandegiak antolatatu ditzaitezue zure etxean obrak egiteko.

Etxe-Aundi



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,

EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU

Annu de Codorníu

Andregaiak, galdetze hutsagatik, oparia jasoko du

ZUEK ESAN PREZIOA ETA GUK MENUA

Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90

TELEBISTAREN TXOKOA

Isabel Gallastegi "Ni Alkate" saioan

Datorren asteazkenean udal-hauteskundetarako EAko zerrendaburua, Isabel Gallastegi, etorriko da ATBko "Ni Alkate" saiora. Mikel Irizarrek bere alderdiaren asmoei buruz galdetuko dio eta alkategaia pertsonalki hobeto ezagutzeko aukera egongo da. Hauteskunde-saio hau asteazkenean, gaueko 9.30etan izango da.



PROGRAMAZIOA



9 Igandea

21.00etan
Mondragol. Itxaro Zubillagak aurkeztuta.

10 astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

11 Asteartea

13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

12 Asteazkena

13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Ni Alkate" hauteskunde-saioa. Alkategaia: EAko Isabel Gallastegi

KOMIKIA



Oharra

Apirilaren 13an Aste Santuko oporrak hartuko ditugu ARKOk langileok, beraz, 13tik 24ra bitartean ez da ohiko programazioa antenan izango. Dena den, egun guzti horietan, artxibatuta dugun hainbat programa eskainiko dizuegu: "Ibilixan Dabilena" abentura-programa, umeentzako marrazki bizidunak eta filmak. Programazioa arratsaldeko 8etan hasi eta 10ak aldera amaituko da.

Ondo pasa Aste Santuak!

Etxe-Bundi

1. PLATERA

Hukukulu entsalada antsoekin
Bakailao nahasia

POSTREA

Etxe gozoteria

ARDOA

Etxe ardo gorria eta beltza

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

ARTEA

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

SOLUZIOAK

Bigarrena gaizki.

Jerogifitkioa:

N!
7. Aza. 8. Nurt. 13. Niki. 15. Jar. 17.
Bi. 4. Damak. 5. Arazi. 6. Galerna.
Bertikalak: 1. Doinu. 2. Anaia. 3.
14. Dakiti. 16. NAN. 18. Agintari.
razu. 10. La. 11. Malari. 12. Oinaze.
Horizontalak: 1. Madagan. 9. Enba-

Etxebizitzak

- **Garaje plaza salgai** J. I. Iñarra pasealekuan. Prezio onean. Tfnoa: 79 07 34.
- **Aste Santurako** apartamentua alokatzen da Torrevejan (La Mata hondartzan). Tfnoa: 71 63 19.
- **Pisua alokagai Eskoriatzan**. 97 m². Sukaldea, 3 gela, terraza. Tfnoa: 71 43 51. Gaueko 9etatik 11etara.
- **Apartamentua daukat Jacan** udaran alokatze-ko. Tfnoa: 74 15 22.
- **Garajea alokagai Larrea Plazan**, Tfnoa: 79 36 79.
- **Garaje itxia alokatzen da Larrea aldean**. Tfnoa: 79 69 41. Julia.
- **Bi oheko gela alokatzen da**. Tfnoa: 79 07 73.

Lana

- **Magisteritza bukatua dut eta klase partikularrak emango nizkie** OHO ikasleei. Interesatzen bazaizu deitu 79 94 04 tfnora. Marijo.
- **Neska umeak zaintzeko neska prest**. Tfnoa: 79 90 04. M^o Jose.
- **Umeak edo pertsona nagusiak zainduko nitzuke**. Tfnoa: 79 39 15.
- **Neska prest**, etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 96 10
- **Esperientziadun emakumea gertu dago** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuek dei egin larumbat eta igandeetan 79 31 44. Mirian.
- **Taberna edo denda batean lan egingo nuke**. Tfnoa: 77 02 70.

- **Etxeko edo atarteko** garbitasunak egiteko gertu. Tfnoa: 79 37 95.
- **Erizain laguntzailea** eta esperientziadun gero-kultorea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 53.
- **Egunero 2 edo 3 orduan** etxeko lanak egiteko emakumea gertu. Tfnoa: 77 10 20.
- **Mutil gazte bat lana egiteko prest** Kamare-ro, eraikuntzan... Tfnoa: 79 77 32.
- **Esperientziadun neska euskalduna** behar da, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera 79 21 63 tfnora.
- **Klase partikularrak** ematen dira. UBI mailara arte. Matematikak fisika, kimika... Talde txikiak. Tfnoak: 79 56 82 eta 79 71 89.
- **Neska gertu** etxeko lanak egin eta umeak zain- tzeke edo dendari lanak egiteko. Tfnoa: 79 93 17
- **Neska gertu umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia daukat. Tfnoa: 79 77 94.
- **Andra euskalduna** etxeko lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- **Umea zaintzeko** pertsona euskalduna behar da. Dei egin eguerdiko ordu 1etik ordu 2etara. Tfnoa: 77 13 30.
- **Puerikultura laguntzailea** esperientziaduna umeak zaintzeko gertu. Batez ere ume txikiak. Tfnoa: 79 32 39

Salerosketak

- **Bigarren eskuko altzariak salgai**. Tfnoak: 79 23 97 / 79 52 80.
- **Kanping edo karro erremolkea salgai**. Tfnoa: 79 00 99.

- **Bi garaje plaza alokatzen dira**. Tfnoa: 79 82 95. Amaia. Arratsaldez.
- **BMW K-75-S salgai**. SS-AK matrikula. 27.000 km. Berria eta prezio onean. Tfnoa: 77 04 21.
- **Motorra salgai**. BMW K75 - S. Matrikula: SS - AK. 27.000 km. ditu. Berria eta merkea. Tfnoa: 77 04 21.
- **Siberiar huski zakur kumeak salgai**. Begi urdin- dunak. Oso merke. 35.000 pta. Tfnoa: 79 57 03.
- **Asolo markako mendiko botak salgai**. 41 zen- bakia. Prezio onean. Tel. 79 23 60.
- **Gas naturaleko kalentadorea salgai**. Prezio one- an. Tfnoa: 79 59 72.
- **Bi pare eski** eta bi pare bota salgai. 33.000 PTA- gatik. Tfnoa: 79 25 31. Gauez.
- **Gaztainondo egurrezko** "armairu zubia" saltzen da bi ohekin. Prezioa erabakitzeke deitu 79 44 00 tfnora.
- **Kanping-denda salgai**. Oso handia eta egoera onean. Tfnoa: 74 15 22.
- **Nissan Serena salgai** prezio onean. Tfnoa: 79 19 55.

Denetarik

- **Gay/lesbiana bazara**, lagun taldea osatzeko- tan gaude. Elkarrekin primeran pasa dezakegu: jaiak, mendia, afariak... Zeren zain zaude? Idatze lehebait lehen. 128 postakutxa. 20700 Zumarra- ga.
- **Historialari bat** eskaintzen da genealogia egiteko. Tfnoa: 88 30 72. Arkaiz. Iluntzeko 8etatik aurrera.
- **Urrezko pultsera galdu zait**. Aurkitzen duenak dei- tu dezala 79 04 59 tfnora. Ordainduko da.

Aste Gazte

Bekak

- Britania Handian zein Estatu Batuetan 96-97 ikastur- tean ikasketak hedatzeko bekak, "La Caixa" Fundazioak deitu- ta. Lizentziatuei zuzenduta. Epea: ekainak 30
- BBBko 3.eko, UBiko, 2 LHko eta IEEko 2. Zikloko ikas- leei, Estatu Batuetan, Ingalate- rran, Kanadan, Irlandan edo Frantzia, uda partean frantsez eta ingeleseko ikastaroak egite- ko beken deialdia egiten du. 94- 95 ikasturte honetan deialdi oro- korreko bekario izatea ezinbes- tekoa da. Epea: apirilak 12.

Auzolandegiak

- Aurtengo udan auzolan- degietan parte hartzeko, aurreins- kripzioa epea zabalik dago, api- rilaren 21era arte. Aurten zoz- keta egingo da. Adina: 15-30 urte bitartekoei zuzenduak. Izene- matea Gazte Bulegoetan.

Udalekuak

- Foru Aldundiak antolatu- tako udalekuetan parte hartzeko aurreinskripzioa egiteko epea zabalik dago, apirilaren 28ra arte. Adina: 7-13 urte. Aurreko urte- an bezala, zozketa egingo da. Dokumentazioa: inskripzio orria

eta NAN edo Famili Liburuaren fotokopia. Izenematea: Gazte Bulegoan.

Ikastaroak

- Jardingintza ikastaroa, lora- tegi zein parketan lan egiteko profesionalak prestatzeko. Uda- lak eta INEMek elkarlanean anto- latuta. Iraupena: 400 ordu, maia- tzetik urrira, goizeko ordutegia. Izena emateko epea: apirilak 10 INEMen.
- Argazkigintza. Sakontze maila. Maiatzaren 8tik 25era. 7.15etatik 9.15etara. Matrikula, 3.500 pta. / 2.000 ikasle eta lan- gabetuentzat.

"Emakumeei buruz idazterakoan, ostadarrean busti behar da luma"

DIDEROT



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65



JASP.

(Gazteak, baina guztiz prestatuak.)



ARRASATE
Tfnoa: 79 59 99




Clio

1.264.000 pta.tik.



RENAULT

Garantiaren luzapenarekin.



Maialako Errabala, 13 ("OKENDO KIROLAK" en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE

UNITED COLORS
OF BENETTON.

BENETTON